








AURKIBIDEA

	AURKEZPENA	2
	SARRERA	4
	1. KAPITULUA: Etorkizuna Eraikiz eredia.	12
	Gipuzkoako gobernantza irekia eta lankidetzazkoa: Arkitektura	13
	1.1. Espazioak: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab	15
	1.2. Lotura organoa: Proiektuen Bulegoa	30
	2. KAPITULUA: Etorkizuna Eraikiz ereduaren euskarri prozesuak.	36
	Etorkizuna Eraikiz ereduaren euskarri prozesuak	37
	2.1. Proiektu esperimentalen kudeaketa	38
	2.2. Gizarteratzea	41
	2.3. Komunikazioa	45
	3. KAPITULUA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitura Etorkizuna Eraikiz ereduaren jarraipena egiteko.	47
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitura Etorkizuna Eraikiz ereduaren jarraipena egiteko	48
	3.1. Organo kolektiboak	49
	3.2. Zeharkako egiturak	51
	3.3. Laguntza tresnak	52
	ETORKIZUNA ERAIKIZ: ekimena eta eredia	54
	Ikuspegi orokorra	
	GLOSARIOA	55
	GRAFIKOEN BILDUMA	59

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Gobernantza irekia eta lankidetzakoa gobernuetatik "politika egiteko" proposamen bat da, eta duela zenbait hamarkada hasi zen indarra hartzen. Politikak eta gizarteak elkarrekin erlazionatzeko duten modua aldatzea da helburua; hau da, ordezkartzeko demokrazietan erlazionatzeko ohitura gisa hartu dugun eredua. Izan ere, gobernuetako arduradun politikoen eta herritarren - gizartearen, oro har- arteko lotura ahula, urruna, noizbehinkakoa eta hierarkikoa da erlazionatzeko modu horren ezaugarri nagusia.

Munduan, esperientzia, interpretazio eta aplikazio ugari ditu kontzeptu horrek. Batzuen eta besteen artean desberdintasunak daude, baina, funtsean, gobernuen eta gizarte zibilaren artean erlazionatzeko eta elkarlanean aritzeko modu berriak daude haien guztien oinarrian.

Etorkizuna Eraikiz eredu bat da, elkarlaneko gobernantza irekia ulertzeko, ezartzeko eta adierazteko modu berezia eta zehatza: "politika egiteko" modu bat da. Etorkizuna Eraikiz-en helburua da guztiok elkarrekin Gipuzkoako lurraldeak etorkizunean izango dituen erronkak hautematea, horiei aurre egiteko modua diseinatzea, ingurune errealean ezar litezkeen erantzunak esperimentatzea, askotariko agenteekin lankidetzan, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan txertatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak diseinatu eta sustatu du Etorkizuna Eraikiz eredu, eta oinarri, logika, propietate, antolamendu eta funtzionamendu arau jakin batzuk ditu. Eredu horrek, ezinbestean, zerikusia izango du berau sustatzen duen Gobernuaren izaerarekin; izan ere, koalizioko gobernu da, eta ideologia desberdinak eta bizitza publikoaren hainbat alderditan elkarren aurkako ikuspegiak dituzten bi alderdik osatzen dute, baina, hala eta guztiz ere, biak ala biak gai izan dira aldundiaren eskumeneko alderdietan akordio pragmatikoa lortzeko.

Orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak egitura propioa diseinatu du Etorkizuna Eraikiz-en garapena orientatzeko, sustatzeko, kudeatzeko eta bultzatzeko.

Argitalpen honek landa lanerako gidaliburu bat izan nahi du. Bertan deskribatzen eta azaltzen dira, bai Etorkizuna Eraikiz eredu, bai ekimen hori kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko Gipuzkoako Foru Aldundian ezarriko den egitura.

Sarrera, hiru kapitulu, glosarioa eta grafioen bilduma ditu.

Sarrera lau ataletan banatu da. Lehen bi ataletan, Etorkizuna Eraikiz zer testuingurutan abiarazi zen zehazten da; hirugarrenean, ereduari oinarri ematen dioten lau printzipioak azaltzen dira; eta, laugarrenean, Etorkizuna Eraikiz ereduaren berezitasunak jaso dira.

I. kapituluaren, "Etorkizuna Eraikiz eredu" izenburupean, ereduaren osagaiak aurkezten dira eta zehatz-mehatz aztertzen dira haietako bi: "espazioak" (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab) eta "lotura organoa" (Proiektuen Bulegoa).

II. kapituluaren izenburua "Etorkizuna Eraikiz ereduaren euskarri prozesuak" da, eta bertan aurkezten eta azaltzen da ereduaren hirugarren osagaia; hau da, euskarri ematen dioten prozesuak (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa).

"Zehar lerroak" (ikerketa, nazioartekotzea, zabalkundea) izeneko laugarren osagaiaren esanahia, zentzua eta eginkizuna I. kapituluaren eta II. kapituluaren lantzen dira.

III. kapituluaren "Gipuzkoako Foru Aldundian Etorkizuna Eraikiz-en jarraipena egiteko ezarri den egitura" deskribatzeko eta azaltzeko erabili da; zehazki, organo kolektiboak, kudeaketa egiturak eta laguntza tresnak dira.

Argitalpena amaitzeko, Etorkizuna Eraikiz-en ikuspegi orokorra ematen duen grafiko bat sartu da: ekimena, eredu, hartzaileak eta espero diren emaitzak hartzen ditu barnean.

Azkenik, beste bi osagai ere gehitu dira: glosarioa eta grafioen bilduma.

Glosarioan, Etorkizuna Eraikiz ereduaren irakurketa eta ulermena errazteko termino sorta bat bildu eta definitu da.

Grafikoen bilduman, testuaren hiru kapituluaren txertatu diren grafiko guztiak bildu dira, errazago kontsulta daitezkeen.

SARRERA

ALDAKETAREN NARRATIBA SAIHETSEZINA

ALDAKETAREN PRESIOA

Ziurrenik, gizarteek ez dute beste inoiz sentitu aldatzeko presioa orain bezala, berehala eta egunero. Aldaketaren logikan murgilduta bizi gara eta, gainera, abiadura handiz gertatzen dira aldaketak, modu askotan agertzen zaizkigu, eta pertsonengan nahiz erakundeetan ikus daitezke horien eraginak.

Pertsonengan, egunetik egunera nabariagoak direlako ezegonkortasuna, ziurgabetasuna, segurtasun falta, prekaritatea eta desberdinkeriak. Erakundeetan, etengabe aldatu behar dituztelako beren egiturak, prozedurak eta helburuak eraginkortasunez eta efizientziaz jardun nahi badute.

ALDAKETAREN ERAGINAK

Pentsa dezagun, adibide gisa, azken urteotan aldaketaren inpaktu handia izan duten hiru jardueratan: ekonomia, hezkuntza eta politika.

Ekonomiak eta instituzio ekonomiko adierazgarriek -alegia, enpresek- aldaketa handiak ikusi dituzte globalizazioaren eta aurrerapen teknologiko etengabeen ondorioz: merkatuan erabateko presioa eragin, produktu eta zerbitzu jakin batzuen fluxua handitu, lanpostuak suntsitu eta berriak sortu, ekoizpen prozesuak konektatu eta deszentralizatu, eta pertsonen, makinaren eta produktuen arteko lankidetzak aktiboak ekarri dute.

Hezkuntzak eta pertsonen prestakuntza emateko ardura duten instituzioek ere erronka ugari dituzte aurrean: gizarteko balio nagusiak ikaragarri ari dira aldatzen, irakasten dituzten ezagutzak eta gaitasunak oso bizkor geratuko dira zaharkituta, ikaskuntza sistemak etengabe ari dira berrikusten, tresna teknologiko berriak txertatzen dira, eta etengabe eraldatzen ari den ingurune ekonomiko, kultural eta sozialak eskatzen duen abiaduran egokitu behar zaie aldaketei.

Beste instituzio eta erakunde batzuk bezala, politika ere aldaketaren eraginpean bizi da. Herritarren mesfidantza, alderdi sistemen gainbehera, administrazio egitura zurrinak, eraginkortasunik eza, gizartearen beharren eta eskaeren gorakada, eta alderdi politikoen eta herritarren arteko urruntasuna: edozein lurralde mugatik haragoko irtenbideak dituzten

arazoak dira guztiak.

Politikaren alorrean, ez da gehiegikeria esatea, oro har, nahiko hedatuta dagoela ordezkari politikoek herritarren interesak gaizki eta gutxi ordezkatzeko ideia, eta gizarteak pentsatzen duena adierazteko, entzuna izateko eta erabaki politikoetan eragiteko bide gutxi dituelakoa.

ALDAKETARI AURRE EGITEA

Beraz, aldaketaren eraginak guztiz nabarmenak dira pertsonen ekonomia, hezkuntza, politika eta beste hainbat jardueren hautemateko, sinesteko, sentitzeko eta gauzatzeko moduan. Arian-arian, aldaketaren nonahikotasun horrek behin-behinekotasun eta ziurgabetasun sententziaz kezagarria sortzen du etorkizunari dagokionez. Etorkizuna kezka da, ezezaguna da. Ez dirudi errealitate aldakor hori jarrera pasibo batez har dezakegunik, ikusle soilak izanik.

Aitzitik, badirudi ondorio horiei erantzun egin behar diegula, eta etorkizunean suertatuko diren beste batzuei aurrea hartu, gure jardunbideak moldatu, aldaketaren erritmo bizkortuak dakartzan desafioei aurre egiteko. Horregatik, gizarteko jarduerak orok bere gainean hausnartu beharko du ezinbestean, eta berezko dituen erronkei aurre egiteko modua diseinatu beharko du, erantzunak eta irtenbideak bilatzen saiatzeko.

Politikaren kasu zehatzean, galderak agerikoak dira:

Abiadura handian aldatzen den jokaleku horretan ez ikusiarena egin dezake politikak?

Zilegi al du politikak etorkizuneko erronkei aurre ez ematea eta irtenbideari aurre hartzen ez saiatzea?

Gai al da politika bere gabeziei aurre egiteko eta erlazionatzeko eta ekiteko modu onuragarriagoak eta bizigarriagoak diseinatuzko?

ERANTZUNAK POLITIKAREN ALORRETIK: GOBERNANTZA IREKIA ETA LANKIDETZAZKOA

“POLITIKA EGITEA”

Politikaren espazioak zabalak eta askotarikoak dira; izan ere, hainbat lekutatik “egin daiteke” eta “egiten da” politika (governua, legebiltzarra, alderdiak, sindikatuak, gizarte mugimenduak, eta abar), eta askotariko ideiak izanik jomugan (interes orokorra, justizia, ongizatea, zerbitzu publikoak, eta abar).

Gune horiek guztiak, baita horietatik defendatzen diren ideiak ere, aldaketaren eraginpean daude egunerokoan, eta eragile politikoek ahaleginak egin behar dituzte gogobeteko erantzunak emateko.

Gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren asmoa ez da aldaketak politikaren alor guztietan eragindako ondorioei irtenbide orokorrak ematea. Hortaz, ez da “politikagintzaren” gune edo postu guztietan aplika daitekeen erantzun orokor bat.

Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa erantzun espezifikoak da; politikagintzaren gune jakin batetik proposatzen da (governua) eta, funtsean, gobernuen eta gizarte zibilaren arteko komunikazio eta lankidetzazko modu berriak ezartzean oinarritzen da.

Lankidetzazko gobernantza, gainera, ezinbestekoa da gizarte modernoak zatiketa politiko handiagoko jokalekuetara jotzen ari diren honetan, alde anitzeko akordioen mende jartzen baitu gobernagarritasuna; hori horrela, ezinbestekoa da hala erakunde politikoek nola hautesleriak nolabaiteko heldutasun maila eta uko egiteko gaitasuna izatea. Arrakastatsuak izateko, koalizioek lankidetzarako dinamika leialak ezarri beharko dituzte, demokraziak berezkoa duen hautes lehia eta administrazioaren funtzionamendu arrazoizkoa eta eraginkorra bateragarriak izan daitezten.

Jakina, nazioartean, era askotako esperientziak garatu dira gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren barruan. Hortaz, ez dago

gobernantza ulertzeko eta ezartzeko modu bakarra. Nolanahi ere, bai erakundeen baitan, bai erakundeen artean, instituzioen eta gizartearen arteko elkarlana indartzea da esperientzia horien guztien asmoa.

Agenda publikoa eta barnean hartu behar dituen etorkizuneko erronkak diseinatzean, gobernuak, beren kabuz baino, gizartearekin lankidetzan eta interakzioan jarduteko borondatea agertu behar dute, gizarte osatzen duten eragile sozialen sare osoaren bitartez. Hori esperientzia guztietan ageri den ezaugarri bat da.

NAZIOARTEKO ESPERIENTZIAK

Gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren nazioarteko esperientzietan, zenbait ezaugarri komun identifika daitezke:

- > Gobernuaren politika -hau da, gobernutik “politika egiteko modua”- modu irekian ulertzen dute. Horretarako, bitarteko egonkorak ahalbidetzen dituzte, gobernuak eta hainbat eragilek parte hartu eta elkarrekin hitz egin dezaten. Horregatik, jakintza sortzeko eta trukatzeko prozesuei bide ematen dioten guneak sortzen dituzte. Gobernantea, batez ere, lankidetzazko eta ikaskuntzazko dinamika irekia da, erabakiak baldintza hobeetan har daitezten.
- > Ondorioz, entzuteko, hausnartzeko eta, zenbaitetan (baina ez ezinbestean), erabakitzeko guneak sortzen dituzte. Gune horiek ez dira hierarkia baten bitartez zuzentzen; aldiz, harreman horizontalak eratzen dira, eta haietan sozietate zibila osatzen duen eragile sarearekin (instituzioak, enpresak, gobernu kanpoko erakundeak, unibertsitateak, elkarteak, eta abar) interakzioan eta elkarlanean aritzen dira gobernuak.
- > Agenda publikoaren inguruan egituratzen da gobernuaren eta gizartearen arteko interakzioa eta elkarlana, agenda publikoa

ez dadin gobernuaren agenda soilik izan: horren orde, gobernuaren eta eragile sarearen trukearen eta lankidetzaren bidez ezartzen dira agenda publikoaren lehentasunak eta aplikazioak eta, hortaz, baita politika publikoenak ere. Alegia, gipuzkoar gizartearena izango da agenda publikoa.

- > Egitura bereziak sortzen dituzte, gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren prozesuaren egonkortasuna sustatzeko lehenbizi, eta bermatzeko ondoren. Egitura horiek zenbait eginkizun dituzte: kudeaketa sustatzea, finantzaketa bermatzea, emaitzen berri ematea, eta gobernantza prozesuak zuzen ezartzen direla zaintzea. Egitura horiek gobernuaren barruan nahiz kanpoan koka daitezke, edo bi aukera horiek uztartuta.

Era batera nahiz bestera, gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren arloko esperientzia guztietan ahaleginak egiten dira agenda publikoa gizarteratzeko, eragile sozialek osatutako sareen bitartez, eta sare horietan gobernua ez da beste eragile bat baizik.

ETORKIZUNA ERAIKIZ: GIPUZKOAKO GOBERNANTZA IREKIA ETA LANKIDETZAZKOA

Etorkizuna Eraikiz ereduaren oinarrian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso instituzionala dago; izan ere, agenda publikoaren hausnartze eta antolamendu estrategikoan eragile sozialen parte hartzea eta elkarlana ahalbidetzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartu zuen.

Horretarako, entzuteko, hausnartzeko eta probak egiteko askotariko espazioak sortu ditu Etorkizuna Eraikiz ekimenak, horrek guztiak bere isla izan dezan, lehenik eta behin, agenda publikoan; bigarrenik, politika publikoetan; eta hirugarrenik, guztion artean lurraldearen etorkizuneko erronkei eta erronka estrategikoei erantzuteko gaitasunean.

Etorkizuna Eraikiz lau printzipiotan bermatzen da:

ERAKUNDEAREN LIDERGOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu eta zuzendu du Etorkizuna Eraikiz. Ekimena garatzen aktiboki parte hartzeaz gain, proposatu, diseinatu, abiarazi eta finantzaketa bermatu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak Etorkizuna Eraikiz programarekiko konpromisoa ziurtatzen du, lurraldeko eragile guztien artean antolatzeke eta elkarrekintzarako guneak emanez eta, horrez gain, lortutako emaitzak arian-arian politika publikoetan ezarriko direla bermatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoa da Etorkizuna Eraikiz ereduak jarraitutasuna izateko bermerik onena, gobernutik sortu eta ezarri delako gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren eredu egonkorra, eta epe ertain eta luzera haren iraunkortasunaren aldeko apustua egin delako.

Hori horrela, Etorkizuna Eraikiz ereduaren oinarritzen duen lehen printzipioa da Gipuzkoako Foru Aldundia izango dela buruan. Lidergo hori irmoa eta denboran jarraitua izango da, eta, funtsean, ereduaren diseinua, esparru estrategikoa, giza baliabideak eta bitarteko materialak bermatuko ditu.

GIPUZKOAKO LURRALDEAREN ETA GIZARTEAREN ERREALITATEARI EGOKITZEA

Etorkizuna Eraikiz diseinatzeko, Gipuzkoako

lurraldearen ezaugarri berezi batzuetan oinarritu eta bermatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak:

- > Eskualde arteko oreka. Gipuzkoa osatzen duten eskualdeak oso dinamikoak eta aurreratuak dira, bakoitzak dituen baliabideei eta azpiegitura sozioekonomikoei begiratzen badiegu.
- > Elkarte sare trinkoa. Lurralde honetan dagoen gaitasunaren eta partaidetza eta truke kulturaren erakusgarri da.
- > Gizarte ekimena. Lurraldean oso garatuta dago eta kooperatiben mugimendua da horren adierazpen historiko nabarmenetako bat. Egun ere, kulturaren, gizartearen nahiz ekonomiaren esparruetan agerpena du gizarte ekimen horrek.
- > Komunitateko kultura. Lurralde honetan aintzat hartzen dira nahikoa hedatuta dauden zenbait jarrera eta esperientzia, herritarrekiko lankidetzak eta elkarrekintzak, eta erronkei elkarrekin aurre egiteko eta konponbidea emateko gaitasuna erakusten dutenak.
- > Kapital soziala. Ongi hezitako biztanleria dugu, prestakuntza maila altua eta antolatzeke eta erlazionatzeko gaitasun handiak dituenak, eta gizarte harremanen sareari mesede egiten diote Gipuzkoaren tamainak errazten dituen hurbiltasun harremanek.
- > Bizikidetzak berreskuratzea. Behin betiko amaitu dira indarkeriako lau hamarkadak, eta horri esker, gure bizikidetzan izan zituen ondorio suntsitzailak atzean uzteko aukera dugu. Elkar aditze politikoko giro honetan, gero eta handiagoa da giza eskubideen zoru etikoaren eta gure gizartearen aniztasunaren inguruko adostasuna; hortaz, lurraldeko agenda politikoa berritzeko eta modernizatzeko bidea ematen digu.

Hori horrela izanik, Etorkizuna Eraikiz ereduak lotura handia du Gipuzkoako lurraldearen eta gizartearen ezaugarriekin –bereziki, lurraldean agerikoak diren ekimenerako, trukeko, lankidetzarako eta ezagutzak sortzeko gaitasunarekin– eta bigarren printzipio hori aurki daiteke haren oinarrian.

TRUKERAKO ETA ESPERIMENTAZIORAKO ESPazio IREKIAK SORTZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak beste baldintza batzuk bete behar ditu ezarri nahi duen gobernantza irekia eta lankidetzazkoa garatu ahal izateko.

Baldintza horietako bat ikasteko eta berritzeko eremu irekiak sortzea da. Hain zuzen, hainbat norbanakori eta erakunderi interakzioan eta elkarlanean aritzeko aukera ematen dieten guneak; azken batean, elkarrekin lan egiteko, erronkei aurre egiteko, proposamenak sortzeko eta agenda publikoko arazoei konponbideak bilatzeko. Ez da, beraz, leku bakarra izango, baizik eta trukeak eta gogoetak ahalbidetzen dituzten gune fisiko eta birtual guztien batura.

Espazio irekiak proiektuak garatzeko guneak dira. Etorkizuna Eraikiz ereduari, proiektuak dira agenda publikoa kudeatzeko erabiltzen diren lan unitateak. Horiek garatzeko, ezinbestekoa da lurraldeko eragilearen sareak lantalde batzuk osatzea, informazioa, jakintzak, analisiak eta ikerketak partekatzeak eta trukatzeko.

Hala, bada, lantaldeetan interakzio eta elkarlan egonkorra aurrera daramaten pertsonak eta erakundeak konektatzeko sortzen dira Etorkizuna Eraikiz ereduak truke eta esperimendazio guneak. Lantalde horiek proiektuak garatuz egiten diete aurre agenda publikoko erronkei. Proiektu horien emaitzak askotarikoak izan daitezke: ideiak, ikaskuntzak, proposamenak, konponbideak, planak eta abar.

Beraz, Gipuzkoan, truke eta esperimendazio gune irekietan gauzatzen da gobernantza irekia eta lankidetzazkoa, eta lurraldeko eragile sareak osatutako lantaldeek proiektuak garatzeko sortzen dira gune horiek. Horra hor Etorkizuna Eraikiz oinarritzen duen hirugarren printzipioa.

DEMOKRAZIA, KONFIANTZA ETA BALIO PUBLIKOAK SORTZEA

Eragile sare zabal baten artean erlazionatzeko gune irekiak eta hierarkiarik gabeko harreman dinamika horizontalagoak planteatuta, gainera, parte hartze bidezko demokrazia indartzea bilatzen du Etorkizuna Eraikiz ekimenak, ordezkartzeko demokraziaren osagarri izan dadin. Hau da, demokraziaren kalitatea hobetzeko bide egokitzat hartzen da Etorkizuna Eraikiz, eta konfiantza sortzen eta balio publikoa ematen du.

Etorkizuna Eraikiz-en bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak agenda publikoaren kudeaketa partekatzen du, eta eragile sozialen sare zabal batekin elkarlanean eta interakzioan dihardu agenda hori garatzeko, hasi diseinu eta gogoeta faseetatik, eta politika publikoen bitartez esperimendatzeko eta ezartzeko faseetara arte. Hala, gizartea eta lurraldea indartzeaz gain, demokraziaren kalitatea handitzen du.

Koalizioko foru gobernuan dauden sentsibilitate politiko guztiak batu direnez, gainera, gipuzkoar gizartearen espektro zabala identifikatzen da saihetsezin diruditen erronketan eta aurrerapenaren eta gizarte kohesioaren aldeko ikuspegi irmo batetik bazter utzi nahi ez diren aukeretan.

Etorkizuna Eraikiz duela bide, gobernuak eragile sozialen sarearekin lankidetzan eta trukean aritzeko harremanak sustatzen eta indartzen baditu, guztion konpromisoa eta ahalegina harturik oinarri; herritarrei entzuteko, haiekin hausnartzeko eta esperimendatzeko guneak sendotzen eta egonkortzen baditu; eta politika publikoetan txertatzen baditu halako guneetan agertu diren ideiak eta esperientziak; orduan, konfiantza publikoa eta guztion artean erronkei eta proiektuei ekiteko gaitasuna hobetuko da.

Azkenik, Etorkizuna Eraikiz-ek lurraldean sortu duen eragile sarearekin lankidetzan aritzeko dinamiken bitartez, gobernuak eraginkortasun handiagoz garatzen badu agenda publikoa, eta irtenbide pozgarriagoak eta partekatuak aplikatzen baditu lurraldeko erronketan, ondasun publiko ukigai eta ukiezinak sortuko ditu orobat, eta hortaz, baita balio publikoa ere.

Horregatik guztiagatik, lankidetzazko gobernantza irekia eraginkorra da demokrazia, konfiantza eta balio publikoa sortzeko, eta hori da Etorkizuna Eraikiz oinarritzen duen laugarren printzipioa.

ETORKIZUNA ERAIKIZ: EREDUAREN BEREZITASUNAK

Jatorria

Etorkizuna Eraikiz ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoan du bere jatorria. Kudeaketa Plan Estrategikoa gobernuaren ekintza bideratzeko tresna nagusia da.

Plan horren esparruan, legegintzaldiko proiektu estrategikoen artean garatu zen Etorkizuna Eraikiz: "gobernantza irekia eta lankidetzakoa diseinatzea".

Kokapena

- > Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzen da Etorkizuna Eraikiz.
- > Erakunde batek proposatu zuen: Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Bultzada

- > Eragile politiko batek -hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak- izan zuen Etorkizuna Eraikiz martxan jartzeko ekimena.
- > Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren eta gipuzkoar gizartearen artean erlazionatzeko prozedura berritzailea proposatu zuen.

Ikuspegia

- > Etorkizuna Eraikiz ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernutik "politika egiteko" modua aldatu nahi du.
- > "Politika egiteko", truke eta elkarlan ohikoa eta eraginkorra sustatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren eta lurraldeko eragile eta agentzia sarearen artean.
- > Trukea eta elkarlana erraztu nahi du, oraingo agenda publikoa diseinatzeko, agendari elkarrekin erantzuteko, eta etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

Helburu espezifikoak

1.- Etorkizuneko erronkak identifikatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak gipuzkoar gizartearen parte hartze aktiboa sustatu eta bultzatu nahi du, lurraldeak epe laburrera eta ertainera izango dituen funtsezko erronkak eta premiak identifikatzeko.

Herritarrentzat kezka da etorkizuna. Gai batek baino gehiagok sortzen die kezka

eta urduritasuna: babes soziala, aukera berdintasuna, lan baldintzak, lan merkaturako sarbidea, zahartzea, klima aldaketa, eta abar.

Herritarrekin hitz egitea da etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu onena; horrela, zehatz-mehatz identifikatuko dira haien funtsezko beharrak eta kezak.

2.- Agenda publikoa guztion artean taxutzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa lurraldeko agenda publikoa elkarlanean prestatzea da, gipuzkoar gizarteko beste hainbat eragilerekin batera, edukiak, helburuak eta funtsezko lehenetsiak partekatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren ustez, bera ez da agenda zehaztu eta politika publikoak prestatu behar dituen eragile bakarra. Egia da agenda publikoa zehazteko prozesuaren buruan aritu behar duen ezinbesteko eragilea dela, baina baldintza egokiak sortu behar ditu lurraldeko erakunde eta instituzio kultural, sozial eta ekonomiko guztien arteko elkarlana egonkorra izan dadin.

3.- Politika publikoen diseinuan eta esperimentazioan elkarlanean aritzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak modu irekian eta parte hartze bidez diseinatu eta esperimentatu nahi ditu lurraldearen funtsezko erronketarako irtenbideak, horiek politika publikoetan txertatu eta gipuzkoar gizarte osora hedatu ahal izateko.

Elkarrekin lan egiten eta Gipuzkoako politika publikoak diseinatzeko eta esperimentatzeko ikastea da kontua, lurraldean dauden gaitasunak eta jakintzak baliatuz. Horretarako, parte hartzeko aukera emango die unibertsitateei, enpresei, erakunde sozialei eta beste instituzio batzuei, lankidetzan aritzeko eta ondoren politika publikoetan txerta daitezkeen esperimentuak pilotuak garatzeko.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa sustatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariak eta teknikariak funtsezkoak dira Etorkizuna Eraikiz modu pozgarrian gara dadin.

Gipuzkoako gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren eredu hori "politika egiteko"

modu berria da, eta, horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionamenduaren kultura aldatzea eskatzen du; hau da, politikariek eta teknikarien jardunbideak eta erlazionatzeko moduak eraldatu behar dira.

Arian-arian, elkarlanean eta zeharka kudeatzeko aukera emango duen egitura berriago batekin ordezkatu beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren oraingo egitura atomizatua eta zatikatua. Ildo horretan, ezinbestekoa da guztiok ongi ezagut dezatela ereduak, kontakizun bateratua eta homogeneoa izatea, eta pertsona bakoitzak jokaleku berrian zer eginkizun betetzen duen ulertzea. Ildo beretik, Etorbizuna Eraikiz ereduak aukera eman nahi du erantzukizun eta lidergo eremuak bi alderdi politiko desberdinetako diputatuen artean banatzen dituen koalizio gobernuaren aniztasunari buruzko pedagogia egiteko. Izan ere, administrazioa eraldatzeko esparruan gainditzeke dagoen erronketako bat da horren emaitza lan integratua, koherentea eta koordinatua izan dadila.

Funtsean, barne lankidetzak (Aldundiko politikarien eta teknikarien artean) eta kanpo lankidetzak (Aldundiaren politikari eta teknikarien eta herritarren artean) indartzera eta maiz errealitate bihurtzera bideratu behar dira ahalegin horiek guztiak.

Arkitektura

Etorbizuna Eraikiz ereduak bi espazio nagusitan eta lotura organo batean bermatzen da.

1.- Espazioak

Etorbizuna Eraikiz bi espazio handitan garatzen da:

Gipuzkoa Taldean: hausnartzeko eta proposamenak egiteko gunea da.

Gipuzkoa Lab: esperimendatzeko eta ikasteko espazioa da. Etorbizuneko esperientzia aurreratuen laborategia da.

2.- Organoak

Bi espazio horiek kudeatzeko eta erlazionatzeko, lotura organo bat du Etorbizuna Eraikiz-ek:

Proiektuen Bulegoa Etorbizuna Eraikiz ereduak entzute eta erabaki organoa da.

Zehar lerroak

Etorbizuna Eraikiz-en espazioetan (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab) hiru zehar lerro agertzen dira sistematikoki:

- > Ikerketa
- > Nazioartekotzea
- > Zabalkundea

Euskarri prozesuak

Hiru prozesu garatu behar dira:

- > Kudeaketa
- > Gizarteratzea
- > Komunikazioa

1. KAPITULUA

GIPUZKOAKO GOBERNANTZA IREKIA ETA LANKIDETZAZKOA: Arkitektura

Gipuzkoan, funtsean, Etorbizuna Eraikiz eredu ezarriz garatzen da gobernantza irekia eta lankidetzazkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren ekimenez sustatu da Etorbizuna Eraikiz eredu, eta foru gobernuak berak aurrera eraman duen gogoeta eta plangintza estrategikoko prozesuaren ondorioa da.

Etorbizuna Eraikiz gobernantza instituzionaleko sistema berria modu antolatuan ezartzeko lehen urratsa da. Gipuzkoan "politika egiteko" modu berria jarri nahi da martxan, gipuzkoarren lurraldea guztion artean eraikitze bitarteko gisa egonkortu eta finkatu ahal izan dadin.

Etorbizuna Eraikiz ereduaren oinarrian, antolatuta eta elkarri lotuta funtzionatzeko pentsatu den osagai multzo bat dago. Hauek dira:

1.- **Bi espazio handi** (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab), non lurraldeko eragileen sareak hausnartzeko, proposamenak egiteko eta esperimendatzeko jarduerak gauzatzen dituzten, elkarrekin eta hierarkiarik gabe. Jardueren ardatzean Gipuzkoako agenda publikoa dago eta, zehazki, lurraldeak etorkizunean izango dituen erronkak landu nahi dira, horiek identifikatzeko, aztertze, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen bitartez martxan jar daitezkeen irtenbideak proposatzen saiatzeko.

2.- **Hiru zehar lerro** (ikerketa, nazioartekotzea, zabalkundea), Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab guneetan hausnartzeko eta esperimendatzeko egiten diren jardueretan ezinbestean agertu behar direnak, erreferentzia esparru gisa eta partekatutako ikuspegi gisa. Funtsezkoak dira informazioa, jakintzak eta ikaskuntzak sortzeko, planteamenduak taxutzen eta lurraldeko oraingo eta etorkizuneko erronkei konponbide zehatzak ematen lagundu dezaten.

3.- **Lotura organoa** (Proiektuen Bulegoa),

Gipuzkoa Taldean (gogoetak eta proposamenak egiteko gunea) eta Gipuzkoa Lab (esperimendatzeko eta ikasteko gunea) espazioen arteko konektagarritasuna eta logika erlazionala bermatuko duena. Gipuzkoa Taldean gunean plazaratu diren ideiak eta proposamenak Gipuzkoa Lab-en garatuko diren proiektu esperimendal bihurtzea da logika erlazional horren oinarria.

4.- **Euskarri emateko hiru prozesu** (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa), Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioei zerbitzu eman eta haien osagarri izan daitezzen, horrela bermatuko baita gune horietan garatutako jarduerak laguntza tresnak dituztela (kudeaketa), pertsonekin eta taldeekin interakzioan aritzeko eta partekatze esparruak daudela (gizarteratzea) eta irismen eta zabalkunde handiagoa dutela (komunikazioa).

Diseinuan lau osagai horiek biltzeak (espazioak, zehar lerroak, lotura organoa eta euskarri prozesuak) abantaila bat du: elkarrekin lotuta geratzen direnez eta praktikan uztartzen direnez, elkarri ekin eta eragiten diote, eta barnean hartzen dira Gipuzkoan gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ezartzeko eta erakundeetan txertatzeko beharrezko diren osagai guztiak.

Osagai horiek guztiak ongi aplikatzen direla bermatzeak era askotako erronkak dakartza; izan ere, bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Dena dela, haietako bakoitzak funtsezko ekarpena egiten dionez Etorkizuna Eraikiz ereduari, komeni da horiei buruzko azalpenak eta argibideak xeheki lantzea.


Horregatik, I. kapitulu honetan zehatz-mehatz azalduko dira Etorkizuna Eraikiz ereduaren arkitektura eta bi osagaiak –Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioak, batetik, eta Proiektuen Bulegoa lotura organoa, bestetik–.

II. kapituluaren gaia hirugarren osagaia izango da: euskarri emateko prozesuak (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa).

Laugarren osagaiak ikerketa, nazioartekotzea eta zabalkundea izeneko zehar lerroak biltzen ditu. Horien esanahia, zentzua eta funtzioa I. kapituluaren eta II. kapituluaren landu dira, bereziki, Gipuzkoa Lab-i (I. kapituluaren) eta proiektu esperimentalen kudeaketari (II. kapituluaren) buruzko gogoetetan.

I. GRAFIKOA

Etorkizuna Eraikiz ereduaren osagaiak



1.1. ESPAZIOAK: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab

GIPUZKOA TALDEAN

Egituraketa

Proposamenak eta gogoetak egiteko, espazio honetan parte hartu behar dute herritarrek eta instituzio eta elkarte sozialek, gipuzkoar gizartearen ordezkariak ahalik eta onena eta zabalena izan dadin. Ez da gune fisikoa soilik, ezta funtsean ere: lurraldearen etorkizunerako oinarritzat jotzen diren ideiak eta proiektuak identifikatzeko eta proposatzeko dauden toki guztien batura da.

Gaurdaino, hiru mekanismo handi indartu eta garatu dira hausnartzeko eta ideiak sortzeko: think tank delakoak, herritarren proiektuak eta aurrekontu irekiak. Etorkizunean, gogoetak eta proposamenak indartzeko lagungarriak izan daitezkeen beste mekanismo batzuk ezar daitezke, horien osagarri.

Think tankak

Zer dira?

Ideiak trukatzeko eta Gipuzkoaren etorkizunerako ekimenak eta erronkak identifikatzeko eta proposatzeko biltzen diren hausnarketa taldeak dira. Gipuzkoa Taldean espazioan, Gipuzkoa Think Tank hausnarketa taldea osatu da, eta ardatz horren inguruan gauzatzen da think tanken jardura.

Gipuzkoa Think Tank taldeak bere analisiak, gogoetak eta proposamenak egiten ditu, eta, aldi berean, gainerako hausnarketa taldeei koherentzia emateaz eta haien jardura bateratzeaz arduratzen da.

Talde horien guztien funtzionamendurako dinamikan, aurrez aurreko bilerak eta lanerako espazio birtualen bitartez aritzeko beste modu batzuk uztartzen dira.

Orain arte, hausnarketarako esparru hauek izan dute lehentasuna: gizartearen ongizatea, gobernantza, lehiakortasuna eta jasangarritasuna.

Nola erabakitzen da think tank bat martxan jartzea?

Think tank bat sortzeko proposamena Gipuzkoako Aldundiak berak nahiz lurraldeko beste eragile batzuek egin dezakete, think tanka proposatzeko protokoloaren bitartez (ikusi glosarioa).

Proiektuen Bulegoak aztertuko du proposamena eta, hala badagokio, onartu egingo du, think tanka balioesteko protokoloari jarraikiz (ikusi glosarioa).

Think tank bakoitza osatu, kudeatu eta koordinatzeko ardurua Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio (ikusi glosarioa).

Nola hautatzen dira parte hartzaileak?

Think tankean zer-nolako hausnarketa taldea eratu nahi den, horren arabera hautatuko dira parte hartzaileak.

Adibide gisa, Gipuzkoa Think Tank hausnarketa talde nagusiaren inguruan osa litezkeen hausnarketa taldeen zerrenda jaso da hemen:

- > Barneko hausnarketa taldeak (Gipuzkoako Foru Aldundiko langilez osatuak).
- > Adituen hausnarketa taldeak (proposatutako hausnarketa taldearen arabera hautatutako pertsonak).
- > Lurraldeko hausnarketa taldeak (hausnarketaren xede izango den lurralde eremuaren arabera hautatutako pertsonak: udalerrria, eskualdea, probintzia).
- > Hausnarketa talde profesionalak (hausnarketaren xede izango den jardueraren arabera hautatutako pertsonak).

Zer emaitza espero dira?

- > Jakintzak eta ikaskuntzak

Lurraldeko eragileen arteko lankidetzaren, hausnarketaren, elkarrizketaren eta trukearen bitartez jakintzak eta ikaskuntzak sortzea.

> Erronkak identifikatzea

Think tank taldeak zer esparru estrategikori buruz hausnartzen duen, esparru horretan Gipuzkoako etorkizunerako garrantzitsuak diren erronkak eta aukerak.

> Proposamena

Identifikatutako erronkei aurre egiteko ideiak edo proiektuen iradokizunak, beharrezkoa izanez gero Gipuzkoa Lab espazioan proiektu esperimental gisa gara daitezkeen proposamen batzuetan.

Zer tresna erabiltzen ditu Proiektuen Bulegoak think tanka proposatzeko, balioesteko eta emaitzak deskargatzeko?

Tresnak

Funtsean, hiru tresna erabiltzen ditu:

> Think tanka proposatzeko protokoloa.

Think tankaren proposamena balioesteko protokoloa.

> Think tankaren emaitzen protokoloa (ikusi glosarioa).

THINK TANK PROPOSATZEKO PROTOKOLOA

Protokolo honetan biltzen dira think tankaren proposamenaren oinarrizko datuak, Proiektuen Bulegoari bidaltzeko. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea.

THINK TANK PROPOSAMENA			
Identifikazioa			
Think tank taldearen izena			
Proposatzailea			
Deskripzioa			
Laburpen exekutiboa			
Erreferentziako esparru estrategikoa			
Irismena (zeharkakoa/espezifikoa)			
Erronkak	Izendapena	Tipologia	
Helburuak	Izendapena		
Mugarriak	Izendapena	Tipologia	Data
Zenbatetsitako bizi zikloa			
Parte hartzaileak			
Parte hartzaile kop.			
Parte hartzaileen profila			
Tartean dauden GFAn departamentuak			
Parte hartzaileak biltzeko prozesua			
Espero diren emaitzak			
Jakintzak eta ikaskuntzak sortzea			
Proiektuetarako ideiak			
Proiektu proposamenak			

THINK TANKA BALIOESTEKO PROTOKOLOA

Think tankaren proposamena balioesteko oinarriko datuak biltzen dituen protokoloa. Proiektuen Bulegoari dagokio protokoloa kudeatzea.

THINK TANKA BALIOESTEA					
Identifikazioa					
Think tank taldearen izena					
Proposatzailea					
Think tankaren proposamena balioestea					
Esparruaren lehentasun maila	1	2	3	4	5
Aukera	1	2	3	4	5
Parte hartzaileak biltzeko zailtasuna	1	2	3	4	5
Zer erronkari/behari erantzuten dion	1	2	3	4	5
Espero diren emaitzak	1	2	3	4	5
Portafolioa erkatzea					
Esparru horretan garapen bidean diren think tank taldeak	<i>Asko</i>		<i>Batzuk</i>	<i>Gutxi</i>	
Bizi ziklo bera duten think tankak	<i>Asko</i>		<i>Batzuk</i>	<i>Gutxi</i>	
GFAREN eskumenpeko alorra	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Lurralde Historikoaren gaitasunak	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Amaierako balorazioa					
Think tank taldearen lehentasuna					
Zenbatetsitako hasiera data					
Azken balorazioa					
Think Tankaren lehentasuna	1	2	3	4	5
Aurreikusitako hasiera data					

THINK TANKAREN EMAITZEN PROTOKOLOA

Think tank taldearen emaitzak biltzen dituen protokoloa. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea, Proiektuen Bulegoari bidaltzeko.

THINK TANKAREN EMAITZAK		
Identifikazioa		
Think tank taldearen izena		
Proposatzailea		
Adierazle orokorrak		
Sortutako produktuak	Izendapena	Tipologia
Lortutako mugarrak	Izendapena	
Egindako bilera kop.		
Parte hartzaile kop.		
Sortutako proposamenak		
Benetako bizi zikloa		
Egindako ebaluazioak		
Parte hartzaileak		
Ikaskuntzak		
Proposamenen bideragarritasuna		
Zabalkunderako proposamena		

Herritarren proiektuak

Zer dira?

Oinarrizko proiektuak planteatzea eta, hala badagokio, garatzea da haien helburua. Think tankean planteatutako hausnarketa estrategikoko esparruekin lotuta daude. Estrategia Zuzendaritza Nagusiak sustatutako urteroko deialdien bitartez proposatzen dira, herritarren proiektuak egiteko protokoloa barnean harturik (ikusi glosarioa).

Proiektuen proposamenak lurraldeko zenbait erakunderen bitartez planteatu ohi dira (elkarteak, fundazioak, enpresak, unibertsitateak, GKEak, eta abar). Oro har, erakunde horiek partzuergoetan biltzen dira proposamenak garatzeko.

Proiektuak urtebetean gauzatzen dira gutxi gorabehera.

Nola aukeratu dira?

Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio herritarren proposamenak aukeratzea, herritarren proiektua balioesteko protokoloari jarraikiz (ikusi glosarioa).

Zer emaitza espero dira?

> Tresnak

Proiektu esperimentalen garapena sustatzeko (ikusi glosarioa): artefaktuak, teknologia interaktiboak, eta abar.

> Dokumentazioa eta jarraipena

Esparru estrategiko jakin batean, proiektuak benetako testuinguruetan eta jokalekuetan gauzatzearen ondorioz.

> Eskalagarritasuna

Praktikaren eta metatutako esperientziaren ondorioz, herritarren proiektuaren lanari jarraipena emateko, beharrezkoa bada, proiektu esperimental bihurtuz.

Zer tresna erabiltzen ditu Proiektuen Bulegoak herritarren proiektua proposatzeko, balioesteko eta emaitzak deskargatzeko?

Tresnak

Oinarrizko hiru tresna:

> Herritarren proiektua egiteko protokoloa.

> Herritarren proiektua balioesteko protokoloa.

> Herritarren proiektuko emaitzen protokoloa (ikusi glosarioa).

Hurrengo atalean, protokoloen edukia azalduko da.

HERRITARREN PROIEKTUA EGITEKO PROTOKOLOA

Herritarren proiektuaren oinarrizko datuak biltzen dituen protokoloa. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea.

HERRITARREN PROIEKTUA			
Identifikazioa			
Proiektuaren izena			
Proposatzailea			
Deialdia			
Deskripzioa			
Laburpen exekutiboa			
Erreferentziako esparru estrategikoa			
Irismena (zeharkakoa/espezifikoa)			
Erronkak	Izendapena	Tipologia	
Motibazioa, beharra eta aukera			
Proiektuaren hartzaile izango den taldea identifikatzea			
Helburuak	Izendapena		
Mugarriak	Izendapena	Tipologia	Data
Parte hartzaileak	Izendapena		
Lotura Etorbizuna Eraikiz ekimeneko beste proiektu batzuekin			
Zenbatetsitako bizi zikloa			
Zenbatetsitako aurrekontua			

HERRITARREN PROIEKTUA BALIOESTEKO PROTOKOLOA

Herritarren proiektua balioesteko oinarritzko datuak biltzen dituen fitxa. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea.

HERRITARREN PROIEKTUA BALIOESTEA					
Identifikazioa					
Proiektuaren izena					
Proposatzailea					
Herritarren proiektua balioestea					
Esparruaren lehenetsun maila	1	2	3	4	5
Proposamenaren diseinua	1	2	3	4	5
Etorrizuna Eraikiz ereduaren nola txertatzen den	1	2	3	4	5
Aukera	1	2	3	4	5
Parte hartzaileak eta proposatutako lankidetzak	1	2	3	4	5
Espero den eragina / emaitzak	1	2	3	4	5
Jendarteratzeko plana	1	2	3	4	5
Aurrekontuaren egokitzapena	1	2	3	4	5
Portafolioa erkatzea					
Esparruan garapen bidean dauden proposamenak	<i>Asko</i>		<i>Batzuk</i>		<i>Gutxi</i>
Erabiltzaileen/hartzaileen beharra	<i>Handia</i>		<i>Ertaina</i>		<i>Txikia</i>
GFAREN eskumenpeko alorra	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Lurralde Historikoaren gaitasunak	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Amaierako balorazioa					
Proposamenaren lehenetsuna	1	2	3	4	5
Zenbatetsitako hasiera data					
Onartutako aurrekontua					

HERRITARREN PROIEKTUKO EMAITZEN PROTOKOLOA

Herritarren proiektuko emaitzak biltzen dituen protokoloa. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea.

HERRITARREN PROIEKTUKO EMAITZAK		
Identifikazioa		
Proiektuaren izena		
Proposatzailea		
Adierazle orokorrak		
Sortutako produktuak	Izendapena	Tipologia
Lortutako mugarrak	Izendapena	Tipologia
Eragileen arteko lankidetzeta maila	<i>Handia</i>	<i>Ertaina</i> <i>Txikia</i>
Politika publikoetan aplikatzeko aukera	<i>Handia</i>	<i>Nolabaitekoa</i> <i>Deuseza</i>
	<i>Deskribapena (Handia edo Nolabaitekoa bada)</i>	
Jendarteratzeko ekintzak	Izendapena	
Benetako bizi zikloa		
Egindako ebaluazioak		
Parte hartzaileak		
Erabiltzaileak/Hartzaileak		
Beste parte hartzaile batzuk		
Ikaskuntzak		
Eskalagarritasuna		
<i>Handia</i>	<i>Nolabaitekoa</i>	<i>Deuseza</i>
<i>Deskribapena (Handia edo Nolabaitekoa bada)</i>		

Aurrekontu irekiak

Zer dira?

Gaur egun, ekitaldi bakoitzean Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egiten direnean, herritarrei beren kezka, nahiak, lehentasunak, gomendioak eta iradokizunak adierazteko modua ematen dien ekimen bat da.

Nola garatzen da ekimena?

Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuen esanahia eta edukia azaltzeko jardunaldiak antolatzen dira Gipuzkoako udalerrri gehienetan.

Jardunaldi ireki horietan, gune publikoak egokitzen dira (olanak, askotariko zentroetan bilerak, eta abar) herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua ezagutu ahal izateko eta proposamenak egin ahal izateko, aurrekontuetan txertatu balitezke ere.

Zer emaitza espero dira?

- > Gipuzkoako udalerrri gehienara joatea eta in situ azaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko aurrekontuen proposamenak.
- > Herritarren egindako proposamenak jasotzea.
- > Herritarrek egindako proposamenak aukeratzeko protokoloa egitea eta betetzea.
- > Aurrekontuetan jaso, gehitu edo aurrekontuen artean gara daitezkeen proposamenak aukeratzeko.
- > Aurrekontu irekien ekimenari buruzko urteko

txostena egitea.

- > Aurrekontu irekien ekimenaren urteko emaitzaren berri ematea herritarrei, zenbait kanalen bitartez.

Tresnak

Oinarrizko hiru tresna:

- > Udalerrietan eremu publikoak ezartzeko protokoloa, herritarrekiko zuzeneko harremana bermatzeko.
- > Herritarrek egindako proposamenak aztertzeko eta hautatzeko protokoloa (ikusi glosarioa).
- > Aurrekontu irekien ekimenari buruzko urteko txostena (ikusi glosarioa).

GIPUZKOA LAB

Egituraketa

Esperimentaziorako eta ikaskuntzarako espazio gisa egituratu da; bertan, askotariko eragilez osatutako taldeek proiektu esperimentalak garatzen dituzte lankidetzaren bidez. Lankide talde horien osaketa eta jardunbidea Etorbizuna Eraikiz ereduaren ezaugarritzen duten zehar lerroetan oinarritzen da (ikerketak, nazioartekotzea, zabalkundea).

Zer da?

Etorbizuna Eraikiz-en esperimentazio aktiboko laborategia da. Ezagutza zeharo berriak ekoizteko eta erronkei irtenbideak bilatzeko laborategi bat da, haien bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak elikatu eta hobetu ahal izan daitezkeen.

Proiektu esperimentalak da Gipuzkoa Lab-eko esperimentazio unitatea. Proiektu esperimentalak berriak horretarako eratuak diziplinarteko lankidetzaren baten bidez garatzen da. Lankidetzaren ereduaren zeharkako kontzeptioa bermatuko du betiere: ikerketak, nazioartekotzea, zabalkundea.

Nola zehazten da?

Proiektuen Bulegoak proiektu esperimentalaren proposamen protokoloa (ikusitako glosarioa) aztertzen du. Protokolo hori da proiektu esperimentalak onartu eta abian jarri ahal izateko mekanismoa.

Edozein proiektu esperimental egiteko, gutxienez erakunde hauetako pertsonak osatutako lankide talde bat eratzen da:

- > Gipuzkoako Lurralde Historikoaren unibertsitateetako bat, ikerketak lanaren ardura har dezaten.
- > Nazioarteko sare, erakunde edo pertsona bat, erkatze lana bermatu dezaten.
- > Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunderen bat (enpresa, aholkularitza enpresa, elkarteak, fundazioak, udalak, eta abar), dinamizazio eginkizuna bete dezaten.
- > Gipuzkoako Foru Aldundiaren lantalde

teknikoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiari egokituko zaio edozein proiektu esperimental zuzentzea eta koordinatzea. Proiektuaren konplexutasunaren arabera, kanpoko idazkaritza tekniko baten lankidetzaren eska daiteke.

Nola aukeratzen dira proiektuak eta lankide taldeko parte hartzaileak?

Proiektuen Bulegoari dagokio proiektuak eta lankide taldeak aukeratzea, proiektuaren proposamena aztertzearen protokoloan ezarritako irizpideen arabera.

Zer emaitza espero dira?

> Elkarlana

Elkarrekin helduko zaizkio lurraldeko erronka bati edo batzuei eta, esperimentazio lanean eta irtenbideak bilatzean, hainbat eragileren arteko lankidetzaren eta parte hartzearen sustatutako da.

> Ikerketak

Proiektu esperimental bakoitzaren garatzean ikasitakoak formalizatutako eta egituratutako dira; hala, kontsultatutako, erkatutako eta jendarteratutako oso baliagarria den jakintza biltegi bat sortutako da.

> Ikaskuntza eta nazioartekotzea

Jakintzak partekatutako dira, esku hartzen duten pertsonen eta erakundearen gaitasun guztiak baliatuta, eta nazioarteko sareekin eta erakundeekin loturak eratutako dira, jakintza berriak ekartzeko eta Gipuzkoako agenda aldatzeko aukera eman dezaten.

> Zabalkundea

Herritarrei horren guztiaren berri emango zaie, bai sortutako jakintzak bai proposatutako irtenbideak jakinarazteko jardueren bitartez.

> Ekarpena politika publikoei

Aurrez esperimentatu diren eta politika publikoen bidez garatu eta ezar daitezkeen ereduak eta irtenbideak proposatzen dira. Egiaz, politika publikoak eraldatzen dira,

oinarrian, erabidean nahiz garapenean.

> Zehar lana

Esperimentazioaren helburu den alorrean aritzen diren zuzendaritza nagusietako teknikariak sartu eta integra daitezke.

Zer tresna erabiltzen ditu Proiektuen Bulegoak proiektu esperimentalak proposatzeko, balioesteko eta emaitzak deskargatzeko?

Tresnak

Tresna hauek erabiltzen ditu:

> Proiektu esperimentalak proposatzeko protokoloa.

> Proiektu esperimentalak balioesteko protokoloa.

> Proiektu esperimentaleko emaitzen protokoloa (ikusi glosarioa).

Hurrengo atalean, protokoloen edukia azalduko da.

PROIEKTU ESPERIMENTALA PROPOSATZEKO PROTOKOLOA

Protokolo honetan biltzen dira proiektuaren proposamenaren oinarrizko datuak, Proiektuen Bulegoari bidaltzeko. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea.

PROIEKTU ESPERIMENTALAREN PROPOSAMENA		
Identifikazioa		
Proiektu experimentalaren izena		
Proposatzailea		
Deskripzioa		
Laburpen exekutiboa		
Erreferentziako esparru estrategikoa		
Irismena (zeharkakoa/espezifikoa)		
Erronkak	Izendapena	Tipologia
Motibazioa, beharra eta aukera		
Proiektuaren hartzaile izango den taldea identifikatzea		
Helburuak	Izendapena	
Mugarriak	Izendapena	Tipologia
		Data
Zenbatetsitako bizi zikloa		
Zenbatetsitako aurrekontua		
Lankide taldea		
Lankide taldea identifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitatea • Nazioartean erkatzeko eragilea edo sarea • Erakundea (enpresa, GKE...) • GFAren lantalde teknikoa 	Izendapena	Tipologia
Tartean dauden GFAko departamentuak		
Espero diren emaitzak		
Espero den eraginaren proiektzioa (epe labur/ertain/luzean)		
Espero diren emaitzak (produktua/prozesua/ekintza proposamena)		

PROIEKTU ESPERIMENTALA BALIOESTEKO PROTOKOLOA

Proiektu esperimentalaren proposamena balioesteko oinarriko irizpideak biltzen dituen protokoloa. Proiektuen Bulegoari dagokio protokoloa kudeatzea.

PROIEKTU ESPERIMENTALA BALIOESTEA					
Identifikazioa					
Proiektu esperimentalaren izena					
Proposatzailea					
Proiektu esperimentalaren proposamena balioestea					
Esparruaren lehentasun maila	1	2	3	4	5
Proiektuaren diseinua	1	2	3	4	5
Aukera	1	2	3	4	5
Lankide taldea	1	2	3	4	5
Espero den eragina	1	2	3	4	5
Portafolioa erkatzea					
Esparruan garapen bidean dauden proiektuak	<i>Asko</i>		<i>Batzuk</i>		<i>Gutxi</i>
Bizi ziklo bera duten proiektuak	<i>Asko</i>		<i>Batzuk</i>		<i>Gutxi</i>
Erabiltzaileen/hartzaileen beharra	<i>Handia</i>		<i>Ertaina</i>		<i>Txikia</i>
GFAREN eskumenpeko alorra	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Lurralde Historikoaren gaitasunak	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Hein batean</i>		
Informazio gehigarria					
Onartutako aurrekontua					
Proiektuburu izateko proposatu den pertsona					
Amaierako balorazioa					
Proiektuaren lehentasuna	1	2	3	4	5
Zenbatetsitako hasiera data					

PROIEKTU ESPERIMENTALEKO EMAITZEN PROTOKOLOA

Proiektuaren emaitzak biltzen dituen protokoloa. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio protokoloa kudeatzea, Proiektuen Bulegoari bidaltzeko.

PROIEKTU ESPERIMENTALEKO EMAITZAK			
Identifikazioa			
Proiektu esperimentalaren izena			
Proposatzailea			
Adierazle orokorrak			
Sortutako produktuak	Izendapena		Tipologia
Lortutako mugarrak	Izendapena	Tipologia	Data
Politika publikoetan aplikatzeko aukera	Handia	Nolabaitekoa	Deuseza
	Deskribapena (Handia edo Nolabaitekoa bada)		
Benetako bizi zikloa			
Egindako ebaluazioak			
Lankide taldea			
Erabiltzaileak/Hartzaileak			
Beste parte hartzaile batzuk			
Ikaskuntzak			

1.2. LOTURA ORGANOA: Proiektuen Bulegoa

PROIEKTUEN BULEGOA

Egituraketa

Gipuzkoa Taldean (gogoetak eta proposamenak egiteko gunea) eta Gipuzkoa Lab (esperimentatzeko eta ikasteko gunea) espazioen arteko konektagarritasuna eta logika erlazionala bermatzeaz arduratzen den organoa da.

Zer da?

Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioen arteko lotura lanean, entzuteaz eta erabakiak hartzeaz arduratzen da.

Proposamena balioesteko protokoloaren bitartez (ikusi glosarioa) proiektu esperimentalen proposamenak aztertzen dituen organoa da, eta, hala badagokio, horiek onartzeaz eta martxan jartzeaz ere arduratzen da.

Zer osaera du Proiektuen Bulegoak?

Gipuzkoako ahalzun nagusiaren proposamenez izendatutako talde egonkor batek osatzen du Proiektuen Bulegoa.

Kide hauek osatzen dute Proiektuen Bulegoa:

- > Estrategiako zuzendari nagusia, organoaren buruan.
- > Proiektu Estrategikoen Departamentuko ahalzunaren aholkularia (ikusi glosarioa).
- > Estrategia Zuzendaritza Nagusian aritzen diren teknikariak.
- > Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu arteko Batzordeko hiru kide (ikusi glosarioa).
- > Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein unibertsitateko bi kide.
- > Proiektu esperimentaletako partzuergoetan parte hartzen duten erakundeetako bi kide (enpresa, elkarte, fundazioa, udala, eta abar).

- > Gipuzkoako Foru Aldundiaz kanpoko norbait, Proiektuen Bulegoaren Idazkaritza Teknikoaz arduratuko dena.

Egitura egonkor horretatik abiatuta, eta zer gai landu nahi diren kontuan hartuta, Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan parte hartzen ari diren pertsonak gehitu ahal izango ditu Proiektuen Bulegoak.

Zer eginkizun ditu Proiektuen Bulegoak?

- > Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioen arteko konektagarritasuna bermatzea.
- > Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetako jardueraren jarraipena egitea.
- > Think tank proposamenak aztertzea eta, hala badagokio, martxan jar daitezela onartzea.
- > Gipuzkoa Taldean espazioan planteatutako proposamenak, aukerak, ideiak eta lan ildoak aztertzea eta lehenestea.
- > Proiektu esperimentalen proposamenak balioestea eta, hala badagokio, martxan jar daitezela onartzea.
- > Etorkizuna Eraikiz-en jardueraren urteko txostena prestatzea.
- > Etorkizuna Eraikiz ebaluatzeko urtean bitango txostena ezartzea eta prestatzea.

Eginkizun horiek guztiak aurrera eramateko, hiru hilean behin bilduko da Proiektuen Bulegoa eta, edonola ere, urtean lau bilera egingo direla bermatuko da.

Zer emaitza espero dira?

> Konektagarritasuna

Proiektuen Bulegoak Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioen arteko konektagarritasuna bermatu beharko du, Etorkizuna Eraikiz-ek funtzionamendu egonkorra duela ziurtatzeko.

> Ezarpena

Proiektuen Bulegoak Etorkizuna Eraikiz ereduaren estrategia zehaztu behar du, proiektu esperimentalak lehenetsiz eta denbora mugak ezarriz.

> Jarraipena

Proiektuen Bulegoak Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioen funtzionamendua gainbegiratu behar du.

> Ebaluazioa

Proiektuen Bulegoak, prozesuaren eta eraginaren adierazleak aukeratu, eta

ereduaren ebaluazioa bermatu behar du.

> Gobernantza

Ereduaren konektagarritasuna eta erregulazioa bermatuta (ezarpena, jarraipena, ebaluazioa), kalitatezko eta lankidetzazko gobernantza irekia ahalbidetzeko baldintzak sortu behar ditu Proiektuen Bulegoak.

Zer tresna erabiltzen ditu Proiektuen Bulegoak bere eginkizunak garatzeko?

Tresnak

Eskuarki, bi tresna erabiltzen ditu:


> Portafolioa: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetako protokolo guztiek osatzen dute. Bi espazio horietako jarduerari buruzko informazio aipagarria hartzen du barnean.

> Monitorea: portafolioan jasotako aldagai guztien ikuspegi orokorra ematen du. Entzuteko eta erabakiak hartzeko funtsezko informazioa hartzen du barnean.

Hurrengo atalean, bi tresnen edukia azalduko da.

PORTAFOLIOA

Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetako protokolo guztiak hartzen ditu barnean.
Bi espazio horietako jarduerari buruzko informazio garrantzitsua ematen du.



MONITOREA

(Simulazioa)

ADIERAZLEAK	GIPUZKOA TALDEAN/GIPUZKOA LAB JARDUERA						
Jarduera zer espaziotan garatzen ari den	GT	GT	GT	GL	GL	GL	GL
Jardueraren tipologia (THTK/PROI)	THTK	PROI	THTK	PROI	PROI	PROI	PROI
EGOERA (ideia/balizko proiektua /aribideko proiektua/ amaitutako proiektua)	I	I	BP	ArP	ArP	BP	BP
Proposatzailea (AD/GIZ/ERA/PRI)	AD	GIZ	AD	GIZ	PRI	PRI	GIZ
Esparru estrategikoa	1.EE	2.EE	1.EE	4.EE	2.EE	3.EE	1.EE
Zer erronkari/behari ematen dion erantzuna	2.EEE	4.EEE	1.EEE	1.EEE	3.EEE	2.EEE	1.EEE
Esparruan garapen bidean dauden proiektuak	3	4	1	5	6	0	2
Esparruaren lehentasun maila (1etik 5era)	1	2	5	4	3	2	3
PKBk emandako lehentasuna (1etik 5era)	2	1	3	2	3	3	4
Erabiltzaileen/hartzaileen beharra (handia/ertaina/txikia)	H	H	E	T	H	E	H
Zenbatetsitako bizi zikloa	1	3	2	3	2	1	1
Tartean dauden GFAko departamentuak	2	3	0	1	2	1	0
Espero den eraginaren proiektzioa	e.lab.	e.ert.	e.luz.	e.luz.	e.lab.	e.luz.	e.ert.
Espero diren emaitzak	e.ert.	e.luz.	e.luz.	e.luz.	e.luz.	e.ert.	e.ert.
Aukera (1etik 5era)	2	3	1	4	1	2	3
GFAren eskumenpeko alorra (bai/ez/hein batean)	B	B	B	E	E	E	H
Lurralde Historikoaren gaitasunak (bai/ez/hein batean)	E	E	B	H	H	E	E
Politika publikoetan aplikatzeko aukera (handia/ertaina/txikia)	H	E	T	H	T	E	H
Nazioartean egindako jarduerak	0	0	1	1	2	0	0

MONITOREA (esparru estrategikoak)

(Simulazioa)

GIPUZKOA LAB, ESPARRU ESTRATEGIKOEN ARABERA	1.EE	2.EE	3.EE	4.EE
Proiektuen ideiak	6	3	5	7
Balizko proiektuak	2	0	1	3
Aribideko proiektuak	1	1	2	3
Amaitutako proiektuak	1	1	0	2


GIPUZKOA TALDEAN, ESPARRU ESTRATEGIKOEN ARABERA	1.EE	2.EE	3.EE	4.EE
PROPOSATZAILEAK				
Administrazioa	2	0	0	0
Gizartea	7	3	4	2
Erakunde soziala	8	9	7	5
Erakunde pribatua	2	1	5	3
TIPOLOGIA				
Think tank	3	1	6	0
Proiektua	1	3	2	9

PARTE HARTZEA, ESPARRU ESTRATEGIKOEN ARABERA	1.EE	2.EE	3.EE	4.EE
Unibertsitate kopurua	4	1	2	3
Parte hartzaile kopurua Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab guneetako jardueretan	50	200	35	80
Kanpo eragileen kopurua	2	1	5	2
Nazioarteko eragileen kopurua	2	3	2	8
Tartean dauden departamentuak	3	2	1	4

II. GRAFIKOA

Etorbizuna Eraikiz: espazioak eta lotura organoa

Dinamikak



2. KAPITULUA

ETORKIZUNA ERAIKIZ EREDUAREN EUSKARRI PROZESUAK

Etorkizuna Eraikiz bere jarduera praktikoen bidez gauzatzen da eta horrela hartzen du zentzua. Etorkizuna Eraikiz ereduari euskarri ematen dioten prozesuak jardunbideak garatzean betetzen diren zeregin eta ekintza nahiko egonkorak dira. Euskarri prozesu horiek beharrezkoak eta ezinbestekoak dira ereduak ongi funtziona dezan. Askotariko tresnak erabiltzen dituzten jarduera erregular eta espezializatuak dira.

Beraz, euskarri prozesu bat da Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan egiten diren jarduera praktikoa sustatzeko funtzioa duten zeregin eta ekintza erlazionatuen eta egituratuen multzoa. Eginkizun eta ekintza horiek garatzeko zenbait tresna daude, eta haien edukia berariaz diseinatzen da proposatutako helburua kontuan hartuta.

Hauk dira Etorkizuna Eraikiz ereduko jardunarekin batera gauzatzen diren hiru

euskarri prozesuak: kudeaketa, gizarteratzea eta komunikazioa. Hiru prozesu desberdin izan arren, elkarrekin lotuta eta koordinatuta daude guztiz.


Kudeaketa prozesua Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioak (hau da, Etorkizuna Eraikiz gauzatzen den guneak) hornitzeaz, jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen da, arreta berezia jarriko proiektu esperimentalen garapenari.

Gizarteratze prozesuak, zehazki, transferentzia eta zabalkunde zereginen egiten die erreferentzia; haren bidez, Etorkizuna Eraikiz-ek sortutako ekimenak, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzen dira.

Komunikazio prozesuak, kanal telematikoak eta aurrez aurrekoak erabiliz, Etorkizuna Eraikiz ereduko jarduera eskala handian zabaltzea sustatzen du.

III. GRAFIKOA

Etorkizuna Eraikiz: euskarri prozesuak Dinamikak



2.1. KUDEAKETA

Nori dagokio Etorkizuna Eraikiz kudeatzea?

Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko prozesua Proiektuen Bulegoaren esku dago. Beraz, Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan garatutako jardueren konektagarritasunaz eta jarraipenaz arduratzen den Etorkizuna Eraikiz-eko organoaren esku dago.

Horretarako, Estrategia Zuzendaritza Nagusiaren laguntza du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo hori arduratzen da laguntza tekniko eta administratiboaz, aholkularitza eta elkarlanaz Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetako jarduerak garatzean.

Etorkizuna Eraikiz gauzatzen den espazioetan (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab), kudeaketa zereginen asmoa ez da jardueren garapena oztopatzea, horiek erraztea baizik; helburua ez da horiek kontrolatzea, behar duten laguntza ematea baizik; eta ez da haien garapena baldintzatzen, monitorizatze laguntza ematen baizik.

Zer zeregin ditu kudeaketak?

Erraztea, laguntzea eta monitorizatzea: zeregin horiek betetzen ditu Etorkizuna Eraikiz-eko kudeaketa prozesuak Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan.

Gipuzkoa Taldean kudeatzeko zereginak kudeaketako portafolioaren bitartez egiten dira (proposamenak egiteko, balioesteko eta emaitzen protokoloak). Haiei esker errazago ikuskatu daitezke ideiak hausnartzeko eta proposatzeko hiru mekanismoak; hau da, think tankak, herritarren proiektuak eta aurrekontu irekien protokoloak.

Gipuzkoa Lab espazioko zereginak ere kudeaketa portafolioaren bitartez gauzatzen dira (proposamenak egiteko, balioesteko eta emaitzen protokoloak). Kasu horretan, proiektu esperimentalak ikuskatzeko lana errazten dute; hau da, esperimentatzeko eta politika publikoetan aplikatu daitezkeen emaitzak ekoizteko mekanismoak hartzen dira barnean.

Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan garatzen diren jardueren buruzko ikuspegi orokor etengabea izateko, funtsezkoak dira «portafolioko aktiboak» (ikus glosarioa), kudeaketa portafolioko tresnak (protokoloak).

Nolanahi ere, proiektu esperimentalak zein garrantzitsuak diren ikusita, hurrengo atalean zehatz-mehatz azalduko dira horien ezaugarriak eta egitura.

PROIEKTU ESPERIMENTALAK: EZAUGARRIAK ETA EGITURA

Noiz jartzen dira martxan?

Proiektu esperimentalak Proiektuen Bulegoaren proposamenez jartzen da martxan. Organo hori arduratzen da Gipuzkoa Taldean espazioan adierazitako ideiak eta proposamenak Gipuzkoa Lab-en garatuko diren proiektu esperimental bihurtzeaz.

Zergatik jartzen dira martxan?

Gipuzkoa Taldean gunean garatutako jardueren funtsa "zer" da; Gipuzkoa Lab-en, ordea, "nola" datza oinarrian. Horregatik, Proiektuen Bulegoak proiektu esperimentalak sustatzen ditu, eredu eta irtenbide aplikagarriak sortzeko diseinatutako jarduerak planteatzen bada eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan eragina badu.

Proiektu esperimentalak martxan jartzeko erabakia hartzeko, Proiektuen Bulegoa Monitorea izeneko tresnaz baliatzen da; izan ere, entzuteko eta erabakiak hartzeko informazio oinarrikoena eta garrantzitsuena ematen du.

Zer dira proiektu esperimentalak?

Proiektu esperimentalak izateko, ekimen batek baldintza hauek bete behar ditu:

- > Etorkizuna Eraikiz eredu esparru estrategiko batekin edo gehiagorekin bat etorri behar du.
- > Erronka bati edo gehiagori erantzuna emateko helburua izan behar du.
- > Lurraldeko hainbat eragile biltzen dituen diziplinarteko lankide talde baten bitartez garatu behar da, eta lurraldeaz kanpoko eragileak izan behar ditu, halaber, konparazioaren eginkizuna betetzeko.
- > Esperimentazio praktikora bideratu behar da, eraldatzeko mekanismo gisa.
- > Esperimentazio praktikoa ikuspegi trianguluarra izan behar du, hiru zehar lerrotan oinarritzen baita: ikerketa,

nazioartekotzea eta zabalkundea.

Ikuspegi trianguluar horrek ezagutza eta ikaskuntza sortzen du, eta emaitza aplikagarrietan txertatu behar da.

Emaitzak politika publikoetan aplikatzeko proposamenak dira.

Nork garatzen ditu proiektu esperimentalak?

Proiektu esperimentalak lankide talde batek garatzen ditu, eta bertan lau motako eragilek izan behar dute ordezkaritza, osaera honen arabera:

- > Unibertitateak, ikerketa lanaz arduratzeko. Hala, beharrezko jakintzak eman behar ditu, lehenik eta behin, esperimentazioa gidatzeko eta, bigarrenik, lortutako emaitzak sistematizatzeko.
- > Nazioarteko eragile edo sare bat, antzeko arazoak landu dituzten eta jakintzak, ikaskuntzak eta politika publikoak hobetzeko erreferentzia diren konponbideak ezarri dituzten beste toki batzuetan garatutako esperientziekin konparatzen dela ziurtatzeko.
- > Lurraldeko eragile batez edo gehiagoz osatutako sare bat, esperimentazio aktiboa dinamizatzeaz arduradakin, parte hartzeko bideak sustatuz eta jendarteratzeko lanean ere lagunduz.
- > Gipuzkoako Foru Aldundia, pertsona baten edo batzuen bitartez, esperimentazio prozesuan parte hartu eta proiektuburu lanak egin ditzan, kudeaketa eta baliabideak emanez eta gizarteratzeko eta komunikatzeko ekintzak gidatuz.

Zer helburu espezifiko dituzte proiektu esperimentalek?

- > Ekintza proposamenak diseinatzean askotariko eragileen eta ikuspegiaren esku hartzea bermatzea.
- > Lankidetzaren lana hierarkiarik gabeko espazio ireki batean, berdintasun baldintzetan eta kokaleku simetriketatik garatzeko erraztasunak ematea.
- > Ekintzarako proposamen gisa formulatutako emaitzek informazioa, jakintzak, ikaskuntzak eta balio publikoa sor ditzatela lortzea.
- > Esperimentazio aktiboa politika publikoak

diseinatzen eta ezartzen lagunduko duen prozedura sistematiko eta egonkorra izan dadila sustatzea.

- > Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura operatibo eta funtzionalaren aldaketa barneratu dadila sustatzea.
- > Lurraldeko eragileen artean lankidetzarako kultura hedatzeko ahaleginak egitea.

Zein da proiektu esperimental baten bizi zikloa?

Proiektu esperimental baten bizi zikloa aldatu egiten da, helburuen konplexutasunaren, kopuruaren eta aniztasunaren arabera.

Nolanahi ere, proiektu esperimental baten bizi zikloa urtebetekoa da gutxienez, eta hiru urtekoa gehienez.

Nola egituratzen da proiektu esperimentalak?

Proiektu esperimentalak bost fase ditu:

1. fasea – Plangintza estrategikoa

Oinarrizko zereginak:

- Lankide taldea osatzea.
- Hartzailea edo hartzaileak identifikatzea.
- Ikerketa diseinatzea.
- Esperimentazioa diseinatzea.
- Nazioartekotzeko estrategia diseinatzea.
- Denborazko plangintza egitea.

2. fasea – Ezarpena

- Ikerketaren eta esperimentazioaren diseinuak ezartzea.
- Nazioartekotzeko estrategia garatzea.

3. fasea – Prototipazioa

- Esperimentazio prozesuan sortutako jakintza aktiboak aukeratzea eta sailkatzea.
- Jakintza aktiboak formalizatzea politika publikoetan aplikatzeko produktu edo proposamenetan.

4. fasea – Emaitzak

- Emaitzak egituratzea.
- Jakintza gordetzeko biltegia antolatzea.
- Ikasitakoak deskribatzea eta antolatzea.

- Ebaluazio ekintzak laburtzea.
- Emaizten txosten orokorra prestatzea.

5. fasea – Jendarteratzea

Gizarteratzeko eta komunikatzeko jarduerak.

Proiektuburuaren koordinaziopean horretarako eratu den lankide taldeari dagokio proiektuaren lehenengo lau faseetan garatu beharreko plangintzaz eta jardueraz arduratzea.

Aldiz, 5. fasean gizarteratzeko eta komunikatzeko jardueren proposamena egitea Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio, ondoren lankide taldearekin konparatu dadin.


Gizarteratzeko eta komunikatzeko jardueretan, bai Estrategia Zuzendaritza Nagusiak bai lankide taldeko parte hartzaileek esku hartzen dute.

Nori dagokio proiektuaren jarraipena eta kontrola egitea?

Proiektuen Bulegoa arduratuko da proiektu esperimentalaren jarraipena eta kontrola egiteaz, eta Estrategia Zuzendaritza Nagusiak lagunduko dio zeregin horretan.

IV. GRAFIKOA

Proiektu esperimentalak Dinamikak



2.2. GIZARTERATZEA

Nori dagokio Etorkizuna Eraikiz gizarteratzea?

Estrategia Zuzendaritza Nagusia arduratuko da Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko prozesua zuzentzeaz eta gauzatzeaz, eta Zuzendaritza Batzordeak gainbegiraturiko du; hau da, bere eginkizunen artean Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko eta komunikatzeko jarduerak sustatzeaz, kudeatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoak.

Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko prozesua, funtsean, Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan sortutako emaitzez eta ikaskuntzez elikatzen da.

Nor dira Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko prozesuaren hartzaileak?

Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko prozesuak hiru ekintza eremu eta hiru hartzaile mota ditu:

- > Kanpo gizarteratzearen hartzailea gipuzkoar gizarte osoa da, eta, bereziki, bertako eragile sarea.
- > Barne gizarteratzearen hartzailea Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariak eta teknikariak dira.
- > Gizarteratze akademiko eta espezializatuaren hartzaileak unibertsitateak, erakunde publikoetako gobernauak, agentzia publiko espezializatuak eta politika publikoen eta gobernantzaaren alorreko nazioarteko sareak dira.

Zer helburu espezifiko ditu gizarteratzeko prozesuak?

Barneko eta kanpoko gizarteratze prozesuen helburuak batera aurkezten dira, antzekoak baitira; hala ere, hartzaileak nor diren, desberdintasun batzuk agertzen dituzte. Oinarrian, hiru helburu dira:

- > Gipuzkoako lankidetzazko gobernantza irekiaren eredia barneratzea.

Helburu hori betetzeko, beharrezkoa da, batetik, lurraldeko biztanleek eta eragileen sareak eredia ezagutzea, ulertzea eta harekin identifikatzea (kanpo gizarteratzea) eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek eta teknikariek eredia ezagutzea, ulertzea, harekin identifikatzea eta beren ohiko jarduna

aurrera eramateko oztopotzat ez hartzea (barne gizarteratzea).

- > Etorkizuna Eraikiz-eko jarduerak garatzeko elkarlana.

Helburu hori betetzeko, ezinbestekoa da, batetik, lurraldeko biztanleek eta eragileen sareak parte hartze aktiboa izatea Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan garatutako jardueretan eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariak eta teknikariak prest egotea Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan garatzen diren jardueretan parte hartze aktiboa izateko, eta zer eginkizun duten eta nola bete behar duten ulertzea.

- > Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-eko jarduerak jendarteratzea eta konparatzea.

Helburu hori betetzeko, funtsezkoa da Etorkizuna Eraikiz-en portafolioan emaitzen protokoloak kontsultatzea, sortutako jakintzen eta ikaskuntzen berri ematen dutenez. Hori horrela, batetik, lurraldeko biztanleekin eta eragile sarearekin partekatu behar da informazio hori eta, bestetik, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek eta teknikariek ere, bereziki, Departamentu arteko Batzordearen funtzionamendu egokia bermatzeko.

Zer laguntza tresna daude gizarteratze prozesua garatzeko?

Funtsean, hiru laguntza tresna daude:

- > Kanpo gizarteratzearen urteko plana

Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio plana prestatzea, eta bertan jaso behar da zer ekintza egingo diren, zer metodologia diseinatu den eta zer material erabiliko diren Etorkizuna Eraikiz eredia lurraldeko biztanleekin eta eragile sarearekin partekatze.

- > Barne gizarteratzearen urteko plana

Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio plana prestatzea, eta bertan jaso behar da zer ekintza egingo diren, zer metodologia diseinatu den eta zer material erabiliko diren Etorkizuna Eraikiz eredia Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek eta teknikariek partekatze.

- > Gizarteratze akademiko eta espezializatuaren urteko plana

Zuzendaritza Batzordea arduratuko da plana

egiteaz, unibertsitatearen aholkularitzarekin.

Gizarteratze akademiko eta espezializatuak, gizarteratze prozesuaren berariazko helburuez gain, Etorkizuna Eraikiz jendarteratu eta zabaldu nahi du, funtsean, lau eremu hauetan: unibertsitateak, erakunde publikoetako gobernuak, agentzia publiko espezializatuak eta politika publikoen eta gobernantzaren alorreko nazioarteko sareak.

Material orokor hauek erabiltzen dira: artikulu zientifikoak aldizkari espezializatuetan, liburuetako kapituluak, liburuak, hitzaldiak eta komunikazioak kongresu espezializatuetan eta biltzarretan, proiektu zientifikoak, eskola magistralak, aurkezpen digitalak eta aurrez aurrekoak, eta abar.

Eskuarki, jarduera hauek egiten dira: espezializatutako aldizkarietara artikulu zientifikoak bidaltzea, biltzar eta jardunaldi akademikoetan parte hartzea, nazioarteko lehiaketa deialdietan ikerketa proiektuak aurkeztea, mintegiak eta udako ikastaroak antolatzea eta halakoetan parte hartzea, nazioarteko sareetan parte hartzea, politika publikoekin eta gobernantzarekin zerikusia duten masterretan parte hartzea, eta espezializatutako zentroetan bisitak eta aurkezpenak egitea.

Gizarteratze akademiko eta espezializatuari esker, Etorkizuna Eraikiz eredia formalizatzen eta gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren inguruko jakintza espezializatua metatzen duen biltegia sortzen da. Era berean, lagungarria da espezializatutako beste eragile batzuekin trukeak eta aliantzak eratzeko, Etorkizuna Eraikiz eredia nazioartean zabaltzeko eta politika publikoen eta gobernantzaren alorreko nazioarteko sareetan parte hartzeko.

Zer eduki partekatzen dira kanpoko eta barneko gizarteratze jardueretan?

Ezarritako hiru helburu espezifikoaren inguruan egituratutako gizarteratze dinamikak erraztea da edukien xedea. Helburu bakoitzari eduki jakin bat dagokio; jakina, antzeko beste eduki batzuen bitartez ere osatu daiteke. Hauek dira funtsezko hiru edukiak:

> Etorkizuna Eraikiz ereduaren kontakizuna.

Etorkizuna Eraikiz azaltzeko modua da: zer den, zer aldaketa planteatzen dituen, zer zailtasun dituen aurrean eta zer estrategiaren bidez helduko zaien. Kontakizuna zentzua partekatzeko eta lortu nahi denaren ikuspegiari buruz hitz egiteko modu bereziki eraginkorra da.

Ziurrenik, kontakizuna lantzea da gizarteratze prozesuaren lehen helburua -hau da, Gipuzkoako lankidetzazko gobernantza irekiaren eredia barneratzea- sustatzeko aukera onena.

> Etorkizuna Eraikiz gidaliburua

Etorkizuna Eraikiz ereduaren aurkezpen eta azalpen xeheak jaso behar ditu. Gidaliburua lantzea modu eraginkorra da lurraldeko biztanleek eta eragile sareak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek eta teknikariek ongi uler dezaten zer eginkizun eta zeregin dituzten Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioei dagokienez. Gizarteratze planaren bigarren helburua elkarlana da.

> Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko portafolioa

Bertan jasotzen dira Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan garatzen diren jardueren aktiboak eta, hortaz, jarduera horien egoeraren informazio eguneratua. Portafolioa partekatzea modu eraginkorra da Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab guneetan aribidean diren jardueren zabalkundeari eta konparazioari ekiteko, eta hori da, hain zuzen ere, gizarteratze prozesuaren hirugarren helburua.

Zer jarduera mota sartzen dira kanpoko eta barneko gizarteratze planetan?

Hauek dira gizarteratze planetan sartutako oinarritzko jarduerak:

> Prestakuntza

Etorkizuna Eraikiz-en gidaliburua eta kontakizuna azaltzeko, aztertzeko eta partekatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko politikarientzat eta teknikarientzat (barne

gizarteratzea) eta lurraldeko biztanleentzat eta eragileen sarearentzat (kanpo gizarteratzea) antolatu behar dira prestakuntza jarduerak.

Jarduera horiek garatzeko, lantalde egonkorak eratu behar dira, eta urteko gizarteratze planek zehaztutako denboraldian zehar egingo dituzte bilerak.

Osaeraren arabera, lantaldeak lau motakoak izango dira:

- Lurraldeko eragileek osatutako taldeak.
- Lurraldeko biztanleek osatutako taldeak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariek osatutako taldeak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek osatutako taldeak.

Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio prestakuntza jardueren plangintza espezifikoa egitea (osaera, bizi zikloa, egutegia, dinamika, eta abar), urteko gizarteratze plana martxan jartzean.

> Lantegiak

Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko portafolioan (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab) dauden aktiboak ezagutzera emateko eta partekatzeke. Portafolioak berak zer bilakaera duen, lantegien xedea askotarikoa izan daiteke: adibidez, proiektu bat aurkeztea, edo think tank baten emaitzak, herritarren proiektu bat, aurrekontu irekien emaitza, eta abar.

Lantegiak erakundeko langileentzat (barne gizarteratzea) edo kanpoko langileentzat egin daitezke, edo biak elkartuta. Lantegiak garatzeko, aldizkako lantaldeak egingo dira.

Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio lantegi horien plangintza espezifikoa egitea (parte hartzaileak, egutegia, dinamika, eta abar), urteko gizarteratze plana martxan jartzean.

> Beste zenbait jarduera

Askotariko formatuak dituzte (hitzaldiak, eztabaidak, aurkezpenak, eta abar), eta antolatu gabeko herritarrentzat egiten dira bereziki.

Formatu horiek helburu bikoitza dute: batetik, jakintzak eta ikasitakoak helaraztea eta, bestetik,

Etorkizuna Eraikiz eredu agenda publikoan sartutako hainbat gairi buruz hitz egiteko eta hausnartzeko bidea ematea, izaerarengatik edo edukiarengatik interes publikoa pizten badute.

Jarduerak ez dira jarraituak, eta Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio haien plangintza espezifikoa egitea (parte hartzaileak, egutegia, dinamika, eta abar), urteko gizarteratze plana martxan jartzean.

Non garatzen dira barneko eta kanpoko ohiko gizarteratze jarduerak?

Gizarteratze prozesuko ohiko jarduerak garatzeko, badago espazio fisiko bat (Etorkizuna Eraikiz Gunea), barneko nahiz kanpoko gizarteratze jarduerak egiteko aukera ematen duena, eta egitura bat (Departamentu arteko Batzordea), besteak beste, barneko gizarteratze prozesua sustatzeko eginkizuna duena.

> Etorkizuna Eraikiz Gunea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregiaren beheko solairuan dagoen laborategi bat da; 200 metro karratu inguruko azalera du eta hiru eremutan banatuta dago: bilera gela, Etorkizuna Eraikiz ereduaren azalpen grafikoa eta bisuala egiteko eremu bat, eta hirurogei bat lagun biltzeko lekua duen erabilera anitzeko areto bat. Gainera, areto horrek behar diren ekipamendu guztiak ditu, askotariko jarduerak egin ahal izateko (bilera, lantegiak, aurkezpenak, batzarra).

Laborategian, hormako panelak, bideo-hormak, tabletak eta Etorkizuna Eraikiz ereduari buruzko informazioa duten liburuxkak daude. Etorkizuna Eraikiz-en garatzen diren jarduera ugari egin ahal izateko diseinatutako laborategi bat da; besteak beste, gizarteratze prozesuarekin zerikusia dutenak.

Herritarrei irekitako laborategi egonkorra da, eta hor abiaraziko dira barneko eta kanpoko gizarteratze planetan jasotako proposamen eta jardueretako asko.

Gunea kudeatzeko irizpideak ezartzea Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta koordinazioaz, gainbegiratzeaz eta kudeaketaz arduratzea Identitate Korporatiboko eta Harreman Instituzionaleko Bulegoari dagokio.

> Departamentu arteko Batzordea


Politika publikoen jarraipena egitea da Batzordearen zeregin nagusia; horretarako, koordinazioa, elkarlana eta zehar lerroen integrazioa sustatzen ditu. Politikarien eta teknikarien artean informazioa banatzeko eta partekatzeko organotzat hartzen da.

Eginkizun nagusi hori abiaburuan, Etokizuna Eraikiz ereduak Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuetan txertatu, hedatu eta barnera dadila ere susta dezake Departamentu arteko Batzordeak.

Egitura egonkorra da, eta funtsezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren antolamendu kultura eraldatzeko eta teknikariei nahiz politikariei Etokizuna Eraikiz ereduak ezagutarazteko.

V. GRAFIKOA

Etokizuna Eraikiz gizarteratzea Dinamikak



2.3. KOMUNIKAZIOA

Nor arduratzen da Etorkizuna Eraikiz ereduaren komunikazioaz?

Estrategia Zuzendaritza Nagusia arduratuko da Etorkizuna Eraikiz ereduaren komunikazio prozesua zuzentzeaz eta gauzatzeaz, eta Zuzendaritza Batzordeak gainbegiratuko du; hau da, bere eginkizunen artean Etorkizuna Eraikiz gizarteratzeko eta komunikatzeko jarduerak sustatzeaz, kudeatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoak.

Etorkizuna Eraikiz ereduaren komunikazio prozesua, funtsean, Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan sortutako emaitzez eta ikaskuntzez elikatzen da.

Nor dira Etorkizuna Eraikiz ereduko komunikazioaren hartzaileak?

Hiru taldetan sailka daitezke Etorkizuna Eraikiz ereduko komunikazioaren hartzaileak:

- > Gipuzkoar gizartea, oro har, pertsonak, erakunde publikoak eta lurraldeko eragileen sarea.
- > Etorkizuna Eraikiz-en jardueretako parte hartzaileak, barnekoak nahiz kanpokoak izan.
- > Nazioarteko komunitatea eta, funtsean, erakunde publikoak, gobernantza irekiari eta lankidetzazkoari buruzko interesa duten agentziak eta sareak, unibertsitateak eta eragile espezializatuak.

Zer helburu espezifikoa ditu komunikazio prozesuak?

Hartzaile motaren arabera, askotarikoak izan daitezke komunikazio prozesuaren helburuak eta erabilitako komunikazio kanalak, baina oinarrian hiru hauek dira:

- > Etorkizuna Eraikiz ereduak, haren diseinua, jarduerak eta emaitzak eskala handian hedatzea.

> Etorkizuna Eraikiz-en garapen adierazleei buruzko informazio eguneratua ematea, hainbat euskarri erabiliz.

> Gipuzkoako agenda publikoko alor batzuei buruzko informazio eta jakintza biltegi bat jartzea gizarte orokorraren eskura.

Zein da komunikazio prozesua garatzeko laguntza tresna?

Urteko komunikazio plana da oinarrizko laguntza tresna. Estrategia Zuzendaritza Nagusiari dagokio plana egitea, eta barnean hartu behar ditu helburuak, edukiak eta Etorkizuna Eraikiz eskala handian jendarteratzeko erabiliko diren kanal eta euskarriak.

Zein dira komunikazio prozesuaren ohiko kanalak?

Ohiko bi kanal mota erabiltzen dira:

> Kanal fisikoa

Komunikazio kanal tradizionala da. Haren euskarriak lurraldeko espazio fisikoetan ikus daitezke. Kanal mota horretan erabilitako euskarrien adibideak dira, adibidez, pantailak, kartelak, liburuxkak, eta abar.

Etorkizuna Eraikiz ereduaren komunikaziorako lehenetsitako espazio fisikoa Etorkizuna Eraikiz Gunea da. Bertan, askotariko euskarriak erabiltzen dira ereduari buruzko informazioa emateko: hormako panelak, bideo-hormak, tabletak eta liburuxkak.

Horrekin batera, lurraldeko beste toki batzuetan ere erabiltzen dira horma irudiak eta bideoak.

> Kanal birtuala

Internet bidez gauzatzen den komunikazio kanala da. Gaur egun, askotariko euskarriak dituen funtsezko kanal bat da (webgunea, bloga, berripapera, eta abar).

Hartzaile motaren arabera, era askotako euskarriak erabil daitezke:

Hartzaile unibertsalak

“Zeharkako komunikazioa” egiteko euskarriak aukeratzen dira; hau da, ez dago hartzaile zehatz bat, eta litezkeen hartzaile guztiak dira xede. Euskarri hauek erabiltzen dira horrelako komunikazioetarako:

- > Web orria
- > Sare sozialak
- > Bloga

Hiru euskarri horien bitartez, orokorrean, Etorbizuna Eraikiz ereduako komunikazio prozesuaren helburu espezifikoak betetzen dira.

Aukeratutako hartzaileak


Xede eta talde jakin batentzat egindako komunikazioa da, “zuzeneko komunikazioa”, eta, eskuarki, Gipuzkoako lurraldearen barruan daude litezkeen hartzaileak.

Batez ere, erakunde publikoak, lurraldeko eragile sarea eta Etorbizuna Eraikiz jardueretako barneko nahiz kanpoko parte hartzaileak dira komunikazioaren hartzaileak. Euskarri hauek erabili ohi dira horrelako komunikazioetarako:

- > Gutun bidalketa
- > Berripapera

VI. GRAFIKOA

Etorbizuna Eraikiz ereduaren komunikazioa Dinamikak



3. KAPITULUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITURA ETORKIZUNA ERAIKIZ KUDEATZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak bere helburua betetzeko eta Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenaren buruan jarduteko ezinbestekoa da egitura bat izatea, eredia ezartzeko eta hedatzeko zailtasunei erantzuteko gai dena.

Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenaren buruan jarduteko, batetik, zereginen eta erantzukizunen multzoa mugatu eta banatu behar da eta, bestetik, eredia zuzen betetzen dela bermatuko duen egituren eta laguntza tresnen multzoa sortu. Zehazki:

- > Zuzendaritza eta orientazio estrategikoa, eredia garatuz lortu nahi diren helburuak ezarri eta horretarako behar diren baliabideak eman ditzan.
- > Eredua garatzeko zuzendaritza eta koordinazio exekutiboa, euskarri prozesu guztien (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa) ikuspegi sistemikoa izango duena.
- > Zuzendaritza operatiboa, euskarri prozesu guztiak (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa) ezartzeaz eta gainbegiratzeaz ardura dadin.
- > Zeharkako egiturak, eredia Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten pertsonen eta departamentuen artean sustatu eta heda

dezaten.

> Egitura espezializatuak, epe ertainera lurraldeko erronka estrategiko handiak bideratu eta erantzuna eman diezaieten.

> Jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko beharrezko erremintak eta tresnak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bada, jardunaren zerbitzura dagoen egitura bat ezarri behar du Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko. Gobernantza eredia diseinatzea garrantzitsua da, baina, azken batean, jardunak baliozkotuko ditu diseinuak eta emango ditu emaitzak.

Horregatik, jardunean laguntzeko pentsatu da Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko antolatutako egitura, eta ez hura ordezkatzeko.

Hiru osagai ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko ezarritako egiturak: organo kolektiboak, zeharkako egiturak eta laguntza tresnak.

3.1. Organo kolektiboak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua

Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan Etorkizuna Eraikiz garatzeko zuzendaritza, orientazio estrategiko eta erabaki organo nagusia da.

Osaera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru diputatu guztiek osatzen dute Diputatuen Kontseilua.

Eginkizunak Etorkizuna Eraikiz ereduari dagokionez

Etorkizuna Eraikiz eredu garatzeko, Diputatuen Kontseiluari dagokio:

- > Zuzendaritza eta orientazio estrategikoa.
- > Esparru estrategikoak zehaztea.
- > Urteko aurrekontu zuzkidura finkatzea.
- > Egindako jarduerak gainbegiratzea.

Zuzendaritza Batzardea

Xedea

Etorkizuna Eraikiz eredu Ekintza Planak diseinatzeaz eta planifikatzeaz arduratzen den organo exekutiboa da.

Osaera

Osaera hau izango du Zuzendaritza Batzardeak:

- Batzardeburua
- Ahaldu nagusiaren aholkularia Gipuzkoako Foru Aldundiaren Estrategiarako.
- Batzardekideak
- Proiektu Estrategikoen Departamentuko diputatua
- Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatua
- Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kiroletako diputatua
- Estrategiako zuzendari nagusia
- Nazioarteko Lankidetzako zuzendari nagusia
- Proiektu Estrategikoen Departamentuko diputatuaren aholkularia

- Herritarren Partaidetzako zuzendari nagusia
- Estrategia Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzuen burua
- Gai zerrendan landuko diren gaien arabera, beste foru diputatu batzuek eta/edo Estrategia Zuzendaritza Nagusiko teknikariek ere parte hartu ahal izango dute.

Eginkizunak

Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenari dagokionez, Zuzendaritza Batzardeari dagokio:

- > Diputatuen Kontseilua ezarritako helburu estrategikoak betetzea.
- > Etorkizuna Eraikiz garatzeko bultzada ematea eta dinamizatzea.
- > Urteko kudeaketa plana onartzea eta horren jarraipena egitea.
- > Urteko gizarteratze plana onartzea eta horren jarraipena egitea.
- > Urteko komunikazio plana onartzea eta horren jarraipena egitea.
- > Urteko gizarteratze plan akademiko eta espezializatua egitea, onartzea eta horren jarraipena egitea.
- > Gastuaren banaketa eta exekuzioa zehaztea, kontrolatzea eta jarraipena egitea.
- > Aginte koadroa eta euskarri prozesuen portafolioa gainbegiratzea (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa).
- > Etorkizuna Eraikiz Gunea kudeatzea eta gainbegiratzea.
- > Lurraldeko beste erakundeekin eta nazioarteko eragile eta sareekin lankidetzaz akordioak egitea, gobernantza irekia eta lankidetzazkoa izateko interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruz.

Estrategia Zuzendaritza Nagusia

Xedea

Operatiba osoaz eta euskarri prozesu guztiak (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa) ezartzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzen den Zuzendaritza Nagusia da.

Eginkizunak

Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenari dagokionez, Estrategia Zuzendaritzari dagokio:

- > Ezarritako helburu estrategikoak eta aurreikusitako jarduerak gauzatzea.
- > Helburuak betetzeko eta aurreikusitako plangintza garatzeko laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.
- > Urteko kudeaketa plana prestatzea eta garatzea.
- > Urteko gizarteratze plana prestatzea eta garatzea.
- > Urteko komunikazio plana prestatzea eta garatzea.
- > Proiektu esperimentalak jendarteratzeko (gizarteratzea eta komunikazioa) proposamena prestatzea.
- > Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetan jarduerak garatzeko laguntza teknikoa, administratiboa eta aholkularitza ematea eta elkarlanean aritzea.
- > Etorkizuna Eraikiz eredu gizarteratze eta komunikazio jarduerak sustatzea, kudeatzea eta horien jarraipena egitea.
- > Zuzendaritza Batzordeari laguntza teknikoa ematea Etorkizuna Eraikiz Gunea kudeatzeko.
- > Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenari buruzko jakintza eta dokumentazio biltegia sortzea.
- > Zuzendaritza Batzordearen bileretara joatea
- > Zuzendaritza Batzordearen bilerak deitzea, prestatzea eta gai zerrenda lantzea.
- > Proiektuen Bulegoaren buruan jardutea.
- > Proiektuen Bulegoaren bilerak deitzea, prestatzea eta gai zerrenda lantzea.
- > Departamentu arteko Batzordearen burua izatea.
- > Departamentu arteko Batzordearen bilerak deitzea, prestatzea eta gai zerrenda lantzea.

Proiektu Estrategikoen Departamentua

Xedea

Etorkizuna Eraikiz eta Elkar-EKIN ekimenei lotutako erreferentzia zentroen bideragarritasuna eta arrakasta sustatzeko sortu da.

Osaera

Guztira bost erreferentzia-zentro sortu dira, horietako bakoitza gutxienez zuzendari batez eta langile teknika eratuko da.

> Adinberri Fundazioa

> Ziur Fundazioa

> Mubil Fundazioa

> LABe

> 2deo

Funciones

- > Erreferentzia Zentroak eta Elkar-EKIN kudeatzea.
- > Gipuzkoarako proiektu sozial eta ekonomiko estrategiko berriak aztertzea.
- > Kasuan kasuko esparruarekin lotutako proiektu esperimentalak diseinatzea eta proposatzea, ondoren Gipuzkoa Laben garatu ahal izan daitezen.
- > Estrategia Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea euskarri prozesu guztiak aurrera eramateko eta gainbegiratzeko (kudeaketa, gizarteratzea, komunikazioa), Erreferentzia Zentro bakoitzari eta Elkar-EKIN plan bakoitzari dagokion esparruan.
- > Proiektuen Bulegoan eta Zuzendaritza Batzordean parte hartzea.

Proiektu Estrategikoen Departamentuan sartu ez diren Erreferentzia Zentroak.

Koalizio gobernuaren hitzarmenaren arabera, badira hasiera batean Etorkizuna Eraikiz ekimenaren logikan sartutako zenbait egitasmo, proiektu estrategikoenaz bestelako departamentu batzuek garatu behar dituztenak. Kasu horietan, departamentu sustatzaileek, bakoitzak bere arloen esparruan, Proiektu Estrategikoen Departamentuaren eginkizun berak beteko dituztela ulertzen da; halakoak dira, esaterako, klima aldaketari aurka egiteko NaturKlima fundazioaren kasua edo Koldo Mitxelena kulturunearen berrikuntza (baita Gipuzkoa Coopera proiektu esperimentala eta gehitu litezkeen antzeko beste batzuk ere).

3.2. Zeharkako egiturak

Departamentu arteko Batzordea

Xedea

Departamentu arteko Batzordearen xede orokorra politika publikoen jarraipena egitea da, koordinazioa, elkarlana eta zeharkako politiken integrazioa sustatuz, baina, orobat, Etorkizuna Eraikiz eredia Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuetan txertatzea, hedatzea eta barneratzea erraztu dezake.

Osaera

- Batzordeburua
- Estrategiako zuzendari nagusia.
- Batzordekideak
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentu bakoitzeko zuzendari bat, dagokion foru diputatuaren proposamenez izendatutakoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentu bakoitzetik bi teknikari, txandaka agertuko direnak, landu beharreko gaien arabera, Etorkizuna Eraikiz-en Zuzendaritza Nagusiak deialdia egin ondoren.
- Estrategia Zuzendaritza Nagusiaren zerbitziburua, idazkari teknikoaren eginkizunak bete ditzan.

Eginkizunak

Bere eginkizunez gain, Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapenari dagokionez, eginkizun hauek ditu Departamentu arteko Batzordeak:

- > Etorkizuna Eraikiz ereduaren zabalkundea sustatzea, modu aktiboan, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen artean.
- > Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei Etorkizuna Eraikiz eredia garatzeko zer eginkizun duten ulertzen laguntzea.
- > Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioetako jardueren garapenean eta jarraipenean laguntzea.
- > Gizarteratzeko jarduerak sustatzen eta jendarteratzen laguntzea.
- > Gipuzkoako Foru Aldundiaren

departamentuen parte hartzea eta lankidetzaren harremanak indartzea.

- > Proiektu esperimental berean parte hartzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen arteko koordinazioa sustatzea.
- > Etorkizuna Eraikiz eredia kudeatzeko eta erakundean hedatzeko jarduerak eta hobekuntza ildoak proposatzea.
- > Zeharkako ekimenak sustatzea eta babestea.

3.3. Laguntza tresnak

Bi laguntza tresna daude Etorkizuna Eraikiz kudeatzeko, haren jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko: Portafolioa eta Aginte Koadroa.

Portafolioa

Zer da?

Etorkizuna Eraikiz ereduaren egindako jardueren zorroa da. Tresna honen bitartez zertzen da Etorkizuna Eraikiz ereduaren.

Aktibo hauek daude Etorkizuna Eraikiz portafolioan:

- > Gipuzkoa Taldean gunearen portafolioan protokoloak eta jarraipena egiteko monitoreo daude.
- > Gipuzkoa Lab-en portafolioak protokoloak eta jarraipena egiteko monitoreo hartzen ditu barnean.
- > Gizarteratzeko portafolioan gizarteratze plana eta jarraipena egiteko monitoreo daude.
- > Komunikazioko portafolioan komunikazio plana eta jarraipena egiteko monitoreo daude.

Protokoloak portafolioko aktiboen fitxak dira; bertan deskribatzen dira amaitutako edo aribideko jarduerak (think tank, proiektuak, gizarteratzeko prestakuntzak, bidalitako berripaperak, eta abar) eta jardueraren horiei buruzko zehaztasunak (partaideak, hartzaiak, edukia, emaitza, eta abar).

Zertarako balio du?

Etorkizuna Eraikiz portafolioa modu orokorrean kudeatzen den jarraipen tresna bat da, eta ereduaren zenbateraino gauzatu den jakinarazteko informazio eguneratua ematen du, aktibo guztiak aztertuta.

Etorkizuna Eraikiz-en portafolioari esker errazago hartzen dira euskarri prozesu bakoitzari buruzko erabakiak; izan ere, haren bitartez, aktiboek esparru estrategikoari erantzuten dioten eta harekin bat datozen azter daitezke.

Etorkizuna Eraikiz Aginte Koadroa

Zer da?

Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapen egoerari buruzko ikuspegi orokorra da. Portafolioko aktiboetatik ateratako adierazle multzo batek osatzen du.

Aginte Koadroan, kudeatzeko, jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko adierazle garrantzitsuenen arabera iragaz daitezke portafolioko aktiboak.

Zertarako balio du?


Funtsezko tresna da Etorkizuna Eraikiz ereduaren zehaztutako esparru estrategikorako egoki garatzen ari den egiaztatze eta aztertze.

Hari esker, Etorkizuna Eraikiz ereduaren baitan garatzen ari diren jarduerak zuzendu, bideratu eta orekatu daitezke, eta horien neurria egokitu daitezke.

VII. GRAFIKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITURA

Etorkizuna Eraikiz ereduaren kudeaketa eta jarraipena



ETORKIZUNA ERAIKIZ: **ekimena eta eredia** **Ikuspegi orokorra**

GLOSARIOA

GLOSARIOA

- > **Aginte Koadroa:** Etorkizuna Eraikiz ereduaren garapen egoerari buruzko ikuspegi orokorra da. Portafolioko aktiboetatik ateratako adierazle multzo batek osatzen du.
- > **Aurrekontu irekiak:** aurrekontuen ekitaldi bakoitzean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egiten direnean, herritarrek beren kezkek, nahiak, lehentasunak, gomendioak eta iradokizunak adierazi ahal izateko ekimen bat da.
- > **Aurrekontu irekien ekimenari buruzko urteko txostena:** Aurrekontu irekien urteko plana ezartzean egindako jarduera guztiak jasotzen dituen txostena da.
- > **Departamentu arteko Batzordea:** beste eginkizun batzuen artean, Etorkizuna Eraikiz eredu Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuetan txertatzeko, hedatzeko eta barneratzeko modua emateaz arduratzen da.
- > **Estrategia Zuzendaritza Nagusia:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo hori arduratzen da euskarri prozesu guztietako operatiba osoaz, laguntza tekniko eta administratiboaz, aholkularitzaz, eta zentro estrategikoen kontrolaz, koordinazioaz eta jarraipenaz.
- > **Etorkizuna Eraikiz:** Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromiso instituzionalean oinarritutako eredu; izan ere, agenda publikoaren hausnartze eta antolamendu estrategikoan eragile sozialen parte hartzea eta elkarlana ahalbidetzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartu zuen.
- > **Etorkizuna Eraikiz ereduko euskarri prozesuak:** aldizkako jardunbide espezializatuak, zenbait tresnaren bitartez Etorkizuna Eraikiz-eko jarduerak antolatzen, sistematizatzen eta babesten laguntzeko. Hauek dira euskarri prozesuak: kudeaketa, gizarteratzea eta komunikazioa.
- > **Etorkizuna Eraikiz ereduko zehar lerroak:** Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab guneetan garatutako gogoeta eta esperimentazio jardunbideetan ezinbestean agertu behar diren zehar lerroak, erreferentzia esparru gisa eta partekatutako ikuspegi gisa. Funtsezkoak dira informazioa, jakintzak eta ikaskuntzak sortzeko, ikuspegiak egituratzen eta lurraldeko erronkei konponbide zehatzak ematen lagundu dezaten. Hiru dira: ikerketa, nazioartekotzea eta zabalkundea.
- > **Etorkizuna Eraikiz Gunea:** herritarrentzat zabalik dagoen laborategi egonkorra, Gipuzkoako Foru Aldundiaren behe solairuan. Etorkizuna Eraikiz ereduaren garatzen diren jardueretako asko barnean hartzeko diseinatu da.
- > **Gipuzkoa Lab:** esperimentaziorako eta ikaskuntzarako espazioa Etorkizuna Eraikiz ereduaren; bertan, askotariko eragilez osatutako taldeek proiektu esperimentalak garatzen dituzte partzuergo bidez. Lurraldeko eragile sarearen arteko trukea eta elkarlana sustatzen du, proiektu esperimentalak garatzen dituzten partzuergoen bidez. Etorkizuneko esperientzia aurreratuen laborategia da.
- > **Gipuzkoa Taldean:** Etorkizuna Eraikiz ereduaren hausnartzeko eta proposamenak egiteko espazioa. Herritarren parte hartzea sustatzen du, lantaldeen bidez eta herritarren proposamenak garatuz. Lurraldeko erronkei buruz hausnartzen eta ideiak eta ekimenak proposatzen dira.
- > **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan Etorkizuna Eraikiz garatzeko zuzendaritza, orientazio estrategiko eta erabaki organo nagusia da.
- > **Gizarteratzea:** Etorkizuna Eraikiz ereduko hiru euskarri prozesuetako bat. Transferentzia eta zabalkunde zereginak lantzen ditu, Etorkizuna Eraikiz-ek sortutako ekimenak, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeko.
- > **Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa:** politikagintzarako toki jakin batetik (gubernua) proposatutako erantzun espezifikoak. Funtsean, gobernuen eta gizarte zibilaren arteko komunikazio eta lankidetzazko modu berriak ezartzean oinarritzen da.
- > **Gune publikoak prestatzeko protokoloa:** udalerrietan aurrez aurreko jarduerak antolatzeko mekanismoa da.

GLOSARIOA

- > **Herritarren proiektua:** Think Tankean planteatutako hausnarketa estrategikoko esparruen antzekoekin lotura duten oinarrizko proiektuetarako proposamenak. Etorkizuna Eraikiz-en Zuzendaritza Nagusiak sustatutako urteko deialdien bitartez proposatzen dira.
- > **Herritarren proiektua balioesteko protokoloa:** herritarren proiektua baliozkotzeko mekanismoa da.
- > **Herritarren proiektua egiteko protokoloa:** herritarren proiektua onartu eta martxan jarri ahal izateko mekanismoa da.
- > **Herritarren proiektuko emaitzen protokoloa:** herritarren proiektuko emaitzei buruzko informazioa egituratzen duen mekanismoa da.
- > **Komunikazioa:** Etorkizuna Eraikiz ereduaren hiru euskarri prozesuetako bat da, ereduaren jarduera eskala handian jendarteratzea bermatzen duena, urruneko eta aurrez aurreko zenbait tresna erabiliz.
- > **Kudeaketa:** Etorkizuna Eraikiz ereduko hiru euskarri prozesuetako bat. Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab guneetan garatzen diren jarduerak errazteaz, horien jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen da, arreta berezia jarriz proiektu esperimentalen garapenari.
- > **Lankide taldea:** zehazki proiektu esperimentaletarako eratutako taldea. Lankidetzak ereduaren zeharkako kontzepzioa bermatuko du betiere: ikerketa, nazioartekotzea, zabalkundea. Lurraldeko unibertsitate batek, nazioarteko erreferente batek, lurraldeko erakunde batek eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lantalde tekniko batek osatzen dute. Partzuergo horien osaera eta jardunbidea Etorkizuna Eraikiz eredu ezaugarritzen duten zehar lerroetan oinarritzen da (ikerketa, nazioartekotzea, zabalkundea).
- > **Monitorea:** entzuteko eta erabakiak hartzeko funtsezko informazioa hartzen du barnean. Kudeaketa (Gipuzkoa Taldean, Gipuzkoa Lab), gizarteratze eta komunikazio portafolioetako aktiboetako bat da.
- > **Portafolioa:** Etorkizuna Eraikiz-en amaitutako, aribideko eta etorkizuneko proiektuen zorroa.
- > **Portafolioko aktiboak:** kudeaketako (Gipuzkoa Taldean, Gipuzkoa Lab), gizarteratzeko eta komunikazioko prozesuetako portafolioak dira. Protokoloak, jarraipena egiteko fitxak eta monitoreak hartzen dituzte barnean.
- > **Proiektu esperimental:** lurraldeko erronka bati edo gehiagori erantzuna ematea du helburu. Diziplinarteko partzuergo batek garatzen du. Partzuergo hori kide hauez osatuta dago beti: unibertsitatea, nazioarteko agentzia, lurraldeko eragile bat eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak.
- > **Proiektu esperimental balioesteko protokoloa:** proiektu esperimental baliozkotzeko mekanismoa da.
- > **Proiektu esperimentaleko emaitzen protokoloa:** proiektu esperimentaleko emaitzei buruzko informazioa egituratzen duen mekanismoa da.
- > **Proiektu esperimental proposatzeko protokoloa:** proiektu esperimental onartu eta abian jarri ahal izateko mekanismoa da.
- > **Proiektu Estrategikoen Departamentua:** funtsean, Etorkizuna Eraikiz-eko proiektu estrategikoak kudeatzeaz arduratzen da.
- > **Proiektuen Bulegoa:** Etorkizuna Eraikiz ereduaren entzute eta erabaki organoa. Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab espazioen arteko konektagarritasuna eta logika erlazionala bermatzeaz arduratzen den lotura organoa da.
- > **Protokoloak:** portafolioko aktiboen fitxak, non deskribatzen diren amaitutako edo aribideko jarduerak (think tank, proiektuak, aurrekontu irekiak, gizarteratzeko prestakuntzak, bidalitako berripaperak, eta abar) eta jarduera horiei buruzko zehaztasunak (partaideak, hartzaileak, edukia, emaitzak, eta abar).
- > **Proposamenak aztertze eta aukeratzeko protokoloa:** herritarrek plazaratutako proposamenak aztertze eta aukeratzeko protokoloa da, aurrekontuen proiektuan kontuan har daitezen.


GLOSARIOA

- > **Think tank:** ideiak trukatzeko eta Gipuzkoako etorkizunerako ekimenak eta erronkak identifikatzeko eta proposatzeko biltzen diren hausnarketa taldeak.
- > **Think tanka balioesteko protokoloa:** think tanka baliozkotzeko mekanismoa da.
- > **Think tanka proposatzeko protokoloa:** think tank bat onartu eta abian jarri ahal izateko mekanismoa da.
- > **Think tankaren emaitzen protokoloa:** think tankaren emaitzei buruzko informazioa egituratzen duen mekanismoa da.
- > **Zuzendaritza Batzordea:** Eforkizuna Eraikiz ereduko ekintza planak diseinatzeaz eta planifikatzeaz arduratzen den organo exekutiboa da.

GRAFIKOEN BILDUMA

I. GRAFIKOA


Eforkizuna Eraikiz ereduaren osagaiak



II. GRAFIKOA

Eforkizuna Eraikiz: espazioak eta lotura organoa


Dinamikak



III. GRAFIKOA

Etorbizuna Eraikiz: euskarri prozesuak


Dinamikak



IV. GRAFIKOA

Proiektu esperimentalak


Dinamikak



V. GRAFIKOA

Etorbizuna Eraikiz gizarteratzea


Dinamikak



VI. GRAFIKOA

Eitorkizuna Eraikiz ereduaren komunikazioa

Dinamikak



VII. GRAFIKOA

GIUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITURA

Etorbizuna Eraikiz ereduaren kudeaketa eta jarraipena

